

# ttipi ttapa

2005eko urriaren 6a • XXV. urtea


407



**Joxepa Telletxea  
azkeneko serora**

04

Joxepa Telletxea lekaroztarra da Baztan, Malerreka eta Bortzirietan gelditzen den serora bakarra. Elizako lanak egin eta apezari laguntzeaz arduratzen da.



**Bear-Zana plazak  
150 urte egin ditu**

28

150. urteurreneko ospakizun handia egin zuten irailaren 18an Doneztebeko Bear-Zanan. Omenaldi artean, Ezkurra eta Lizaso laxoan ikusteko modua izan zen.



03

FIDEL AGESTA

**Malerrekako argazkilaria  
historikoarekin solasean**

# MUEBLES A METS

Iarunbat  
arratsaldetan  
irekia

4000m<sup>2</sup> ERAKUSKETA  
moblez beteak:

- errustikoak
- modernoak
- klasikoak
- gazteentzako
- sukaldeak
- bainugelak
- atsedendaldia
- iluminazioa
- dekorazioa
- merkealdiak
- tapizak

Sastrin karrika,  
3.2 - 3.4 Alkaiaga

**31789 BERA**

Tfnua. 948 630 537

Fax. 948 631 443

INFORMAZIO GEHIAGO:



**ESKAINITZA**

**3 + 2 Sofa Jokuak  
680€ tik hasita**



[www.mueblesamets.com](http://www.mueblesamets.com)

## SUKALDE ERAKUSKETA BERRIA

Modelo berriak:  
rustikoak, modernoak  
eta praktikoak  
Entzimerak, silestone,  
granito, corian...  
Etxetresna nazionalak  
eta alemanak

**BISITA EZAZU**

• Proiektu eta erreformak:

# AMAIYR

Rosa Seminario 13 • 948 450400  
DONEZTEBE

## DATUAK...

- Argazkilaria famatua da eskualdean Fidel Agosta donamariarra. Donostia, Malerreka eta gure eskualde guziko historia bildu du argazkien bitartez.
- Denbora bateko argazkien altzorra gordetzen du etxean. Donostian erakusketa ireki zuen abuztu hondarrean eta irail hasieran.
- Bere lehendabiziko argazki erreportajea sortzerian egin zuen, Donamariako elizatik monje komentura egin zen prozesio batean.

Fidel AGESTA *Donamariako argazkilaria*

ARGAZKI: JOSEBA OLAGARAI

## «Lekurik ez eta zortzi urtetako ezkontza argazki guziak erre nituen»

Joseba OLAGARAI

Gaur egun argazkilaria gehienek ikasketak dituzte. Zuk nola ikasi zenuen ofizioa?

Niri fotografiak ateratzen ez zidan inork erakutsi. Eskolan zerbait ikasi genuen, maestro erdalduna, guk euskaldunak, eta gainera gutti joan ginen, badakizu lana izaten zen etxean. Argazkiak ateratzen Donostian ikasi nuen, Maturanen. Denda handia zen, bere laborategiarekin. Sotora izaten zuen txuribeltzeko laborategia. Goizean hartzen zuen karretea arratsaldean egiten zuen, eta arratsaldean hartutakoa hurrengo goizean egin. 1960. urtea zen hura.

**Lehendabiziko erreportajea zure sortzerian egin zenuen...**

Donamariako elizatik prozesioa egin zuten komentura eta lehendabiziko argazkia atera nuena, profesional gisara, orduan atera nuen.

**Denbora batean Malerreka argazkilaria bakarra izan zinen...**

Nere aitzinetik bertzeren bat aritu zen, baina ni hasi nintzenean bakarra nintzen, bai. Lehenagotik ezagutu nituen bizpahiru: Morales, gero Donostiara

**«Argazkilaritza ongi baloratzen zuegun, 1962 urte inguruan alduzko orduan zidaten ezkontza erreportaje bat egiteagatik. Orduan dirua zen hori»**

joan zena; Iglesias, ni hasi nintzenean, bertzeren bat ere bai.

**Nola zen garai hartako argazkilaria? Enkarguz aritzen zinen?**

Medikuak bezala ibilia naiz, aunitz aldi gabez edo bazkaltzen ari nintzela deitu eta "halako tokira etorri behar duzu". Leizatik honara ibili naiz gehien bat argazkiak ateratzen. Oroz aldera ere joan naiz. Elizondon bi ezkontzatzen.

**Ezkontzatzen gain, bertze ospakizunen erretratoak ere atera dituzu?**

Ituren, Zubieta eta Aurtzoko ifauletan ibili naiz eta urteko bi egunik zoriontsuenak haiek izaten ziren. 1962tik hasita 1984 urtera arte, urteoro atera nituen argazkiak.

**Etxean zenbat argazki dituzun kon-**

**tatu duzu noizbait?**

Hori zaila duk! Ez dakit zenbat urte behariko diren horiek kontatzeko! Beste asko galduak ere badituz. 1960tik 1968 arteko ezkontzetako argazkiak buruzare batean hartu eta erre egin nituen. Laborategiko estanteriak bete egin zitzaizkidan eta ez nuen tokirik. Tontakeria handia egin nuen eta pena ere izan dut geroztik, baina hainbatetik ez dit gehiago inork ere eskatu. **Argazkilaritzaren mundua izugarri aldatu da. Nola ikusi duzu eboluzio hori?**

Niri suertatu zait egunez lan egin denda, jendea atentitzen eta argazkiak gabez egin behar izatea, gau osoan, eta biharamon goizean berriz ere denda atea ireki behar. Orain, argazki-makina digitalak ikusten dira, baina neregatik libre dira, nik ez dut horietaz atentitzen. Ez ditut ikusi ere egin! Nahiko badut lehenagokoekin, **Noiz arte segituko duzu argazkiak ateratzen?**

Azkeneko bizpahiru urtetan Corpuseko prozesioan argazkiak atera ditut, baina inor ez zail etorri galdeka, bertze argazkilaria batzuk baitaude



FOTOGRAFIA: JOSEBA OLAGARAI

Joxepa Telletxea, Lekarozko eliza garbitzen. «Nik uztean galdu eginen da seroraren lanbidea, gaur egun inork ez baitu lan hau hartu nahi».

Berriki arte, erlijioak garrantzia ikaragarria zuen gizarte tradizionalak. Euskaldunen kulturaren eta bizimoduaren adierazgarri handia izana da mendeotan. Gure aitatzi-amatzien garaian elizak militante laiko sunitz izaten zituen. Horretaz gain, apezak, serorak, sakristauak eta misiolariak ere bai. Baina 70. hamarkadan aidaketa nabaria gertatu zen. Poliki-poliki erlijioaren indarra ahuldu egin zen. Ordutik mezetara jende guttiago joaten da. Moño gazterik ez da ikusten. Apezgai izateko geroz eta jende guttiago dago prest eta misiolarien kopurua ere poliki jautsi da. Baina elizarekin lotura duten ofizio edo lanen artean serorarena da gehien galdu dena. Denbora batean herri guzietan zegoen onakume bat, elizako lanak egin eta apezari laguntzeaz arduratzen zena. Serora. Orain berriz, gure eskualde osoan, bakarra gelditzen da. Lekarozen. Bisita egin diegu.

BAZTAN, MALERREKA ETA BORTZIRIETAN GELDITZEN DEN BAKARRA

## Joxepa Telletxea lekaroztarra da eskualdeko azkeneko serora

Joseba OLAGARAI

Joxepa Telletxea du izena eta Baztan, Malerreka eta Bortzirietan gelditzen den azkeneko serora da. Josetxo Mendioroz Lekarozko apezak baieztatu digu. «Baztango herri guzietan badago emakume onen bat, arropak garbitu, loreak paratu eta elizako lanetan aritzen dena baina serorategian bizi eta serora lanbidea duena Lekarozkoa da bakarra, Joxe-

pa». Bortzirietan ere urte franko dira serorarik ez dagoela. Pello Apeztexea Etxalarako apezak erran digunez, «Eliza garbitzen eta bertzelako lanetan bai, herri guzietan aritzen dira heinbat lagun. Baina nik uste 15-20 urte tik goiti izanzen dirala Bortzirietako herrietan serorarik ez dugula». Tiburtzio Sanzberro Ituren, Zubieta, Eratsun eta Ezkurrako apezka da. Berak aipatu digunez, «uste dut Malerrekako az-

kenekoak Zubietan eta Ezkurrari izan zirela, propioki serora gisa bizi ziren bi emakume. Baina hauek ere duela urte batzuk utzi zuten lan hori».

### 29 URTE ELIZAKO LANETAN

Baztanen duela lau zapaborts urte arte iraun zuen Elizondoko serorak, Carmen Azkaragak. Berageldituz geroztik, Joxepa Telletxeak bakarrik segitzen du ofizio honetan. 78 urte ditu



*“On naizen bitartean segituko dut lanean, Jaungoikoak erran arte”*

## Joxepa TELLETXEA Azken serora

Ertijoaren garrantziak nabarmen egin du beheiti. Horrekin batera seroraren lana ere aunitz aldatu izanen da denbora batetik honat...

Ikaragarri. Gehienbat gazteak ez dutelako segitzen. Aste Santutan eta, Lekarozko eliza bete egiten da. Baina eguneroko mezotan 7 lagun bakarrik biltzen gara. Horrekin batera, gure lana ere aldatu da, noski. Orain lan guttiago dut. Lehen eliza maiz garbitzen nuen, jende aunitz ibiltzen zelako. Orain hamabortzetik behin egiten dut. Ezkilak ere aunitz jotzen ziren denbora batean. Gozamen hutsa zen

hura. Besta guzietan jotzen nituen; San Pedrotan, Santiagotan, Amabirjinetan, San Bartolometan, Besta Berri egunean... elegantea zen. Orain berriz, apezak errana dit ez duela merozi ezkilak hainbertze jotzea, bertze herrietan ez dutela egiten. **Noiz arte segituko duzu serora lanean?**

Ongi naizen bitartean mantenduko dut lan hau. Jaingoikoak erranen du hori, hurrek bakarrik daki noiz izanen den nere topea. Gauza naizen bitartean ez dut utziko. Ez dakit zenbat denboran permitituko didan Jaingoikoak. Haren baitan dago dena.

eta 29 daramazki elizako lanetan. Aiar-guna da eta semearekin bizi da Lekarozko elizan bertan, itxekia dagoen etxe batean. Goiz batean egin dugu hitzordua berekin. Denbora batean hain hedatua zegoen lanbidea gaur egun berak bakarrik nola mantentzen duen ikusi dugu.

Umore onez eta irri handi batekin egin digu ongi-etornia Lekarozko elizan. Hantxe harrautu dugu, eliza garbitzen. «Zuek etorri zaretenerako, goizeko meza aditu dut, oiloak ateratu ditut, gosaidu, ohatzeak egin, etxeko lan zenbait, bazkaria prestatu... eta hamakak eta erdiotarako elizara etorri naiz, garbitzera. Pentsa zenbat gauza!». Hala ere, gurekin solasaldia izateko aitzakian, deskantsu tiki bat ongi etorriko zaiola aitortu digu Joxepak.

### «JENDEAK USTE BAINO LAN GEHIAGO DU SERORAK»

Lasai ederrean jarri gara elizako banko batean, bere lana zein izaten den galdetuz. Jendeak ez duela uste, baina serorak lan aunitz egiten duela garbi utzi digu: «Egia da orain ez dela hainbertze lan, baina izaten dira epokak. Aste Sainduan adibidez, egunero eliza atenditu behar duzu, beti badira predikuak, aidarea bezitu, sua egin... Ospakizun berexirik ez denera berriz, eliza garbitzea izaten da nere ardurarik handiena. Igandetan atak irekitzen ditut. Jende aunitz etortzen da. Nik hagitz gustora hartzen ditut eta eliza goitik beheiti erakusten diet». Batzuk propina ematen dietela ere erraten du Joxepak irri tartean.

Bere jomala ez da handia baina jendearen laguntzarekin bizitzeko nahikoa ematen dio. Semeari ez diola so-sik ere kentzen aipatu digu eta aski gustura bizi dela bere diruarekin. «Ez dut deusen kejarik. Arras kontent bizi

## HERRIKO HISTORIAREN LEKUKO

# 29 urtez Lekarozen hil diren guziak buruz gogoratzen ditu Joxepak

49 urte zituela hasi zen Joxepa serora lanean, duela 29 urte. «Gu etxetara batean bizituen eta Donostiakoak ziren etxeko nagusiak. Egun batean erran ziguten haien ilobak etorri behar zirela goiko pisura. Hori jakinta, se-

narrak segiduan erran zidan: "uste duzu mol-datuko gurela gazte horiek goian izanta? Ez digute lo egiten utziko, saltoka ibiliko dira egunero... hobe du gu hemendik mugitu". Ondoko egunetan berriz, Lekarozko serora Elizondora joaki zela jakin nuen. Berehala pentsatu nuen bere etxea, elizakoa, ederki zela guretzako. Hala bain, apezari erran genion eta segiduan eman zigun baiezkkoa. Serora lana ikastan hasi nintzen orduan. Bi egunetara andre bat hil zen eta hura izan zen nere lehenbiziko «klasea». Handik formak (ostiak) egiten hasi nintzen, eta poliki poliki bertze gauza guzietan. Horrela, gaur arte». Gisa honetan orotzen du Pakitak 29 urtez iraun dion serora lanaren hasiera. Kuriosidade modura, Joxepak urte horietan guzietan Lekarozen hil diren guziak gogoratzen ditu. «Memoria hagitz ona dut. Apezak galdetzen dit: noiz hil zen herriko ez dakit nor? Eta nik momentu batean erraten diot, urtea, hilabetea eta eguna. Badakit zenbat ziren solteroak, zenbatez konduak, ama-kumeak, gizonak, zenbat gazte... dena 130 lagun hil dira Lekarozen».



naiz. Gustora egoten naiz elizan. Etxea ere poliki dugu... ezin naiz kajatu. Jendeak propina ederrak ematen dizkit eta beti ongi portatzen dira nerekin».

Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Franko Inbidea: 3479  
Txapka: 6.000

### ttipi-ttapa aldizkaria

Anduzesa, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfona: (+34) 948 63 54 56  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
www.ttipi.info  
info@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.  
**Presidentea:** Pello Apeztegia.  
**Kudeatzailea:** Joxemai Injoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.  
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.  
**Administrazioa:** Amaia Gola.  
**Berriemakileak:** Eusebio Arotzena, Juana Mari Gairat, Kontzi Klaber, Peio Zestau, Aitzaz Mundeaga, Franck Dotoror, Margan Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Leclita, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altuz, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mixelborena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Oñfi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...  
**Imprimategia:** Gerfu.  
**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leizta, Golzueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperoko udalak, Zugarramurdiako Ahalena elkarteak, Borzobeleneko Euskara Mankomunitatea, Mainerreko Zerbitzu Mankomunitatea...

### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	28 €
Espainia	28 €
Ipar Euskal Herria	40 €
Europa	40 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Mainerria eta Leizta	23 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Esker aunitz!

Euskara maite dugun ikasle talde bat gara, Inuñetik etorriak. Erratzuko kanpinean bi astez jardun dugu barmetegian. Denok Nafarroako Gobernua Euskaltegi honetara antolatzen ditu barmetegiak administrazio publikoetako langileentzat. Gurea irailaren lehenengo hamabostaldian izan da. Eskulitz honen bidez eskertu nahi genieke Baztango biztanle guztiei beren harrera atsegina eta irekia, bereziki musu truk lagundu diguten hurrengoak:

- Arizkongo Pedro Zapata arotzari, antzinako burdin lana erakustea-

### OHARRA

Eskulitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira **Bertzela, ez dira argitaratuko**. Irizki ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea.

gatik.

- Berroetako Oxio irakasleari, Baztango inguruak, istorioak eta historia modu atseginean erakustea.
- Elizondoko Josu Cabodevilla eta Itziar Zabaltzari, Baztango megalitoel buruz emandako azalpenengatik, mendiko harriak beste modu batez ikusarazteagatik.
- Xaloe telebistako Jo-

seban, komunikabidea gure eskura jartzeagatik eta pazientzia handia izateagatik.

- Amaiurko Juan M<sup>a</sup> Alemani, Baztango antolakuntzari buruzko informazioa ulergarria egiteagatik.

Horretaz gain,

- Irulegi irratikoel, pazientziatz bete eta gogotsu irratia erakustea-

- Ustantzako Euskal Kultur Erakundeko Pantxeri, Iparraldeko euskal egoera hurbiltzeagatik.
  - Ez ditugu ahantzi nahi Kastorea eta kanpineko langileak.
- Esker aunitz eta sari aritio.

Iruflea,

2005eko irailaren 20a

## KULTURKARI

PUBLISZITATEA • ZERBITZUAK


Tel: 948 635 408  
Faxa: 948 635 457  
Anduzesa, 12 - 31760 ETXALAR

### Egutegiak.....

Mahai gainekoak

Sakelekoak

Zintzilikatzeak



Etab...

### Loteria talonarioak.....

*zuk behar duzun guztia*

kulturkari@ttipi.net



LOGOTIPOAK • FAKTURAK • KARTAZALAK • FOILETOAK  
BUZOIRATZEKOAK • TXARTELAK • KARTELAK • ALDIZKARIAK...

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Zabalik 2005-09-15

«Lan honetan zure irudiarekin ari zara. Ni telebistan hasi nintzenean, lanetik kanpo ez ninduen inork ezagutzen eta lasai egiten ahal nuen egunerokoa. Baina, orain, gero eta jende gehiagok ezagutzen nau eta gero eta beharriagoa sentitzen naiz. Gogorra egiten zait hori. Neki psikologikoa eragiten dit baita ere telebistan egiten duzun lana denon ahotan egoteak».

Estixu FERNANDEZ  
ETBko aurkezlea  
Zabalik 2005-09-15

«Herri kroletarako ez naiz asko entrenatzen, ahal dudanean soilik. Dena den, asko gustatu izan zaizkit eta ongi moldatzen naiz. Berrogei urte bete arte jarraitzeko asmoa dut. Epe laburrerako badituzt erakustaldi batzuk hitzartuta eta gero neguan begira jarriko naiz. Sokatira ere egingo nuka, baina ituren inguruan ez dago talderik, eta zaila daukat».

Maika ARIZTEGI  
Iturengo kirolaria  
Berna 2005-09-28

• 11 GALDERA LABUR •

**Lehenbiziko bestak alkate gisara. Urduri?**

Ez, normalki bestak gazteek eramanen dituzte eta nik aparteko lanik ez dut.

**Diru gehiago balitz, zer ekarriko zenuke bestetan?**

Musika talde on bat, herri kirolak ere gustatzen zaizkit eta aizkolari onak ekarriko nituzke.

**Okinek gauzez egiten duzue lan. Besta egunez?**

Bai, beharke! Lau betean lan eskatzen eta besta egiten ahal dut.

**Ogiak egin edo aziendak zaindu?**

Aziendak gustatzen zaizkit, baina aziendaz bizitzea zail dago, ez da laguntzarik. Kanpoko lanean diru sarrera segurtatua duzu.

**Okindegia, baserria, alkatetz...**

Etxean ez duzu denbora aunitz emanen...

Ez, ez, guti. Alkatea ez da lan handia baina denbora eman behar zaio.

**Gartzaingo futbito taldean atezain.**

**Noizko txapeldun?**

Duela 24 urte Baztanen jokatu-tako txapelketa bat irabazi ginen, finala Arraiozen kontra jokatu.

**Penaltirik zailenak futbiton edo alkate gisara gelditzen dituzu?**

Alkate-lagunak onak ditut eta hori inportantea da, herian bakarrik lan

ez egiteko. Futbiton, aldiz, zu bakarrik zaude aurkararen kontra.

**Pilarika bestak edo Baztandarren Biltzarra?**

Baztandarren Biltzarrean besta ederrak eginak ditut gaztetan, orai gutiago. Herriko bestatan barkazioak hartzen ditut.

**Urrian, gartzaindarrek bestetarako edo usotarako gogo gehiago?**

Gazteek ez dute usotarako afizio handirik, bestarako gehiago!

**Zer premia ikusten diozu herriari?**

Frontona itaxurekin dago, gaizki. Nequan hor bakarrik biltzen ahal dira haurrak eta moldatu behar da.

**Horretarako dirua behar, noski...**

Herri txikiotan hori da betiko problema, dirua falta beti. Esperatu egin behar!



**Jesus ELIZEGI**  
Gartzaingo alkatea

**MENDI**  
osiatua  
Sortoga 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia - jatetxea sagardotegia

arropak - materialak  
mamiak - nondiokak  
soailak - koxerak  
alfondrak  
**Goya**  
Bera  
Aldon 1 - TUPHAIKUN

**SOULE**  
hileta artea  
Tel: 948 453 444  
Mug: 029 059 583  
**ARIZKUN**

**Pitti**  
eskabazioak  
Tfnoa:  
616 513 491  
Mendialdea etxea, 34  
**ZUBIETA**

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK  
Melamina taulak  
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)  
Txapaz estaltzeko taulak  
Entzimerak  
Ate aruntak eta sukalde mobilendakoak  
Pintura eta berrizak  
Bainurako mobilak eta osagariak  
KIT mobilak, esku-erremintak, etab.  
Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

Carlos  
Garaikortxe  
Etxeniketa  
abokatua  
948 501 488  
948 580 433  
Frantzisko etxea, 12  
Auzorako 104  
**ELBETE**

## ERREPIDEAK

# Sunbilla eta Endarlatsa artean autobidea egitea nahi du Aralarrek

Horretarako mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan

ttipi-ttapa

N-121-A errepidearen egoera egunetik egunera jasangaitzagoa da eta etengabeak dira istripuak, errepide moztaketak, zauntuak eta hildakoak. Horren inguruan bere kezka azaldu du Aralarrek, irailaren 21ean Berako lamotenean eskaini zuen prentsaurrekoan. Funtsean, Nafarroako Gobernuak errepide honi inolako garrantzia estrategikorik ez diola ematen sumatzen dute Aralarretik. Zentzu horretan, Txentxo Jimenez, Nafarroako Aralarreko koordinatzaileak eta parlamentariak adierazi duenez, Nafarroako Gobernuak Pirinioz gairdiko autobidearen alde egin du, N-121A errepidea baztertuz. Aralarren iritzian, hankasartze larria da hori eta proiektua akautzean arazoak segituko du. Jon Abril, Berako zinegotziak gogorarazi zuenez, Bortziritako tartean, nazioarteko garraio astuna ez ezik, ber-



Defie Abuin, Jon Abril eta Txentxo Jimenez, Berako lamotenean eskainitako prentsaurrekoan.

tako industriak eta herritarren joan-etorriak nahitaezko egiten dute errepide sare hobetagoa. Izan ere, «*Belafeko tunelatan egunean 4.000 ibilgailutik goiti pasatzen den bitartean, Endarlatsako zubian kopurua bikoiztu baino gehiago egiten da, 9.000 ibilgailutik goiti pasatzen da*».

Berako Aralarreko zinegotziaren ustez, behin betiko eta etorkizuneko

irtenbide bat behar du berehala N-121 A errepideak, nazioarteko garraio astunaren komunikazio bidea bihurtu baita denbora guttian.

Honegatik guztiagatik, Aralarreko talde parlamentariak mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan. Bertan, Nafarroako Gobernuari N-121A errepidea moldatzeko proiektuak aldatzeko eskaera egiten

du, eta errepidea bikoiztea proposatzen du, autobide bihurtuz, Sunbilla eta Gipuzkoako mugaren arteko zatian. Modu berean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmena birnegoziatzeko ere eskatu dio Nafarroako Gobernuari, «*hitzarmen berriak Gipuzkoako zatia bikoiztea ere bil dezan, eta gisa horretan autobide bihurtzea*».

Errepide zati arriskutsuak moldatzeko plana aurkeztu da

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetakontseilariak, Alvaro Mirandak, 2005 eta 2007 urteen artean Nafarroako errepide sareko puntu arriskutsuak moldatzeko ekintza plana aurkeztu du. Istripu sobera izaten diren zortzi zati eta eta potentzialki arriskutsuak diren bertze hamaka moldatuko dira, 5.171.439 euroko aurrekontuarekin.

Puntu beltz guzti horien artean, bi bakarrik dira eskualdeari dagokionak, biak ere N-121A errepidean. Nafarroako Gobernuak istripu sobera izaten duen gunetzat hartu du Bera eta Endarlatsa arteko zatia, 68,1 eta 69,8 kilometroen artean. Bertze aldeak, potentzialki arriskutsua suertatzen ahal den puntutzat hartu du Etxalarreko bidegurutzea.

## LEGARRA

BERRIKUNTZA  
oposizioak prestatzeko  
liburuak ekartzen ditugu  
Egunero irekia

Tel-Faxa: 948 637 030 - Albistur, 9 - LESAKA

## Alberto RETEGI

Altzale, 17 BERA © 948 630 763

## abokatua

SAROB  
okindegia BANDERS pentsuak

Etxegara, 41 - Tel: 948 632 999 - 0234

ERROTAZAR  
harategia

Bertako  
produktuak

Etxegara, 1  
Tel: 948 630 466  
BERA



**BERA**

## XIX. Lurraren Eguna urriaren 23an izanen da

Urriko kultur egitarauaren barnean bertze hainbat ikuskizuna eta ikastaro izanen da

**Amaia eta Ainhoa**

Datorren urriaren 23an ospatuko da 19. urtez Lurraren Eguna. Egunguzian eskulangi- le azoka eta erakusketa, Bortzirietako produktuen salmenta eta postuak izanen dira. Talo eta gasna postuak, txalaparta, trikitixa, txistulariak, bertsolariak, sargardo eta gasna lehia-keta, dantzaldia eta bertze hainbertze ekitaldiz gozatzeko aukera ere izanen da urteroko moduan. Eguraldi ona bada ekitaldi guztiak Alzaten eginen dira, eurria bada kiroldegian eta Alzateko frontoian. Hala ere, bezperan, urriaren 22an ere izanen da zer ikusi. Arratsaldeko 17:00etan Lizuniagako Igoera izanen da eta gauerdian Alzaten kontzertua.

**Urriaren zer ikasi**

Uxua Emakume Taldeak antolatuta brikolaje ikastaroa izanen da emakumezko nahiz gizonezkoei zuzenduta etxeko konponketa ti-

kiak egiten ikasteko. Herriko Etxean emanen du Jesús Alacidek urriaren 13tik abenduaren 22ra bitartean. Guztira 20 orduko iraupena izanen du eta ostegunetan izanen da arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko epea urriaren 6an bukatuko da eta horretarako interesatuek 012 telefono zenbakira deitu behar du. Prezioa 30 eurokoa da. Alzarian zahar berritze ikastaroa ere izanen da urrian.

**Urriaren zer ikusi**

Urriaren 6an zine-kluben denboraldi berria hasiko da. Aitzineko denboralditan bezala, Kultur Etxean, ortzegunetan eta arratsaldeko 20:30etan ikusi ahal izanen dira filmak. Lehendabizikoa Marisa Lafuente Espainiarraren Platicando da eta sarrerak beti bezala 2 euro ordaindu behar dira. Hasi berri den hilabeta honetan antzerkiak bere tartea izanen du eta denondako ikuskizunak



*Antzaria: Amaia MITIOGIA*

**Dantzari Txiki Eguna**

Irailaren 25ean ospatu zen Dantzari Txiki Eguna. Berako Gure Txokoako dantzariak gain, kanpoko hiru dantza taldek eskaini zuten ikuskizun polita. Argazkian Iturengo taldea ageri da. Eguraldiak lagundu ez zuenez Alzateko Plazan saioa egin beharrean Alzateko frontoian eskaini behar izan zuten.

antolatu dituzte. Labiaga Ikastolak urriaren 9rako Dardar Produzioak Egizu lo Tartalo ikuskizuna ekarriko du. Berako Kultur Etxean izanen da arratsaldeko 17:00etan eta sarrera 3 euro kostako da. Urriaren 15ean, aldiz, Markeliñek Lau bihotz ikuskizuna eskainiko du arratsaldeko 20:00etan toki berean. Sarrera 5 euro ordaindu behar da. Amateur talde baten antzezlanak ikusi ahal izanen dugu urriaren 22an. Egues Bailarako Antzerki Eskolako 7 lagunek bere antzerki irakaslea den Laura Laiglesiairengandik zuzendutako Miguel Mihuraren Melocotón en Almibar antzezlanak eskainiko dute arratsaldeko 20:00etan Kultur Etxean. Sarrera-

ren prezioa 3 eurokoa izanen da. Ikusteko modua ere izanen da Nafarroako Gobernua eta Berako Kultur Batzordeak urriaren 5etik 15era bitartean antolatutako erakusketa. Nafarroan Euskalkiak izena du eta erakusketa honen helburuak Nafarroako euskalkiak ezagutaraztea da, haien berezitasunak azpimarratzea eta mendez-mendez izandako galerak zein izan diren azaltzea. Informazioa jasotzeko testu panelak, euskari informatiko interaktiboak, jatorrizko entzunaldiak, 3D proiektzioa eta argitalpen ezberdinak jarriko dituzte.

**Hitzaldia**

Urriaren 18an, asteartean, hitzaldia izanen

da Berako liburutegian. Berako Kultur Batzordeak Javier Aisa IPE-Seko kidea ekarriko du eta berak arratsaldeko 19:30etatik aintzinarara "La posguerra en Iraq Resistencia, caos y ocupación militar" gaia jorratuko du.

**Alzari konponketa ikastaroa**

Uxua Emakume Elkartek ere alzari ikastaroa antolatu du, urriaren erdialdetik hasita urte bukaera arte luzatuko dena. Kevin Butcher irakasle izanen da Ricardo Baroja ikastetxean lanunbatero goizeko 10etatik 13etara. Izena emateko 012 telefono zenbakira deitu behar da. Matrikulazioa 90 euro kostako da.

**ANSONEA** *Jaletxen*  
 Datatu eta terraza berriak ireki ditugu  
 Egumendiaren 4, 48220 490  
 948 631 155 - BERA  
 Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

**BERA**  
 Zure ingurua klase guztietako insektu (xomorro, zinaurre, arnariarra, kukuru...) eta arratoi zagutzor garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak  
**GOEKO** Industria Garbitasun Produktuak  
 Tel: 948 630 155 (Alkaiaga Industrialdea) **LESAKA**

012 948 631 462  
 Alzate 1 • BERA

## LESAKA

# Osasun Zentroa handitzea ukatu du Nafarroako Parlamentuak

Eskari hori eginez sinadura bilketa egingen da Bortzirietan

Aitor AROTZENA

Lesakako Osasun Zentroa handitu ahal izateko Nafarroako Gobernari gestioak egiten hasi dadin eskatzen zion mozioa ez zuen onartu Nafarroako Parlamentuak. UPN eta CDNko 26 botuak aski izan ziren Aralarren mozioa gibelera botatzeko, nahiz eta bertze alderdi guztiak ados egon. Bortzirietako Osasun Kontseiluak eskatu du osasun zentroa handitzea, horrela zerbitzu berriak eskaini ahal izateko. Bertzeak bertze, ginekologia zerbitzua, amagina edo familia planifikazioa eskainiko liratekeen, lanerako leku gehiago izateaz gain. Horretarako, Lesakako Udalak osasun zentroaren gibelako aldean dituen lurraz uzteko prest dago, 500 metro koadro gehiago izateko aukera emanen lukeena. Baina UPNren ustez, zonakoko populazioaren harrera egiteko nahiko leku bada gaur egun osasun zentroan.

Lesakako Osasun Zentroak arkitektura sari bat badu eta aunitz dirabizitan etortzen diren arkitektura ikasleak. Baina funtzionaltasunaren aldetik ez da batere ero-



**Onbordi eta Telleriako tunelak argi eta zola berrieekin** Irailaren 22an inauguratu ziren Onbordi eta Telleriako tuneletan egindako moldaketa lanak. Bi tunel hauetan argiztapena jarri da, bazterrak garbitu eta zola berri egin da. Udalak 34.000 euroko inbertsioa egin du eta Bertizko Partzuergo Turistikoaren eta Cederna-Garaluren laguntza izan du. Bidasoako trenbidean dabilzanek errazagoa izanen dituzte joan-etorriak.

soa, zati handi bat lorategiak hartzen baitu. Sari hori duenez, hasierako proiektua aldatzen duen aldaketarik ezin da egin. Halere, udaletxean baimenik eskatu gabe zenbait aldaketa egin dira eta lehen pasalekua zen tokian bi kontsulta egin dira. Deñe Abuin, Bortzirietako Osasun Kontseiluko lehendakariak aipatu duenez, «orain ez dago haurmen silefak pasatzeko lekunik eta titia hartzen

duen haurrak eta eri daudenak elkarrekin daudezi. Gizarte langileak bere bulegoa utzi behar izaten du erizaintza larrialdi bat denean eta garbitasuneko langileak bere biltegian ditu kontadoreak, informatika kontrola eta analitikako hozkailuak ere».

Deñe Abuinen ustez, «Bortzirietan diskriminatuak gaude», baina eskaera honekin aitzinera segitzeko inten-

tzioa dute Osasun Kontseilutik. Irailaren 26an Herriko Etxean egin zen prentsaurrekoan agertuzenez, mozioak aurkeztuko dira Bortzirietako udalotan eta sinadura bilketa kanpaina ere egingen da. Deñe Abuinekin batera, Alfredo Goienetxe (Bera), M<sup>o</sup> Luisa Almandoz (Arantza), Jose M<sup>o</sup> Maia (Etxalar) eta Blanca Matxikote (Igantzi) zinegotziak izan ziren prentsaurrekoan.

## FLASH

## Euskal Herriko 28. Marmitako Txapelketa

Herriko Musika Bandak antolatutako 28. Marmitako txapelketa Euskal Herri osoko 149 taldek hartu zuen parte. Horien artean, Durangoko Errotari Elkarte Mikologikoa izan zen onena, epaimahaiak hartutako erabakiaren arabera. Ramon Martinez eta Fernando Arkarazo izan ziren marmitako txapelkunaren egileak. Bigarren postua eskualdean gelditu zen, Sunbilla Ulibeltzak elkarteak Juan Antonio Ibarra eta Juan Luis Apeztegiak prestatutako marmitakoari eman baitzioten sari hori. Hirugarren postua Laudio Lo+bederatzi elkartearentzat izan zen. Antonio Bergara Irundarrak, 82 urterekin, parte-hartzaile zaharrenari emandako saria jaso zuen eta Eguzki elkarteak hartu zuen Lesakako elkarte batek egindako marmitako onenari emandako saria.

## Artzain Eguna urriaren 28an

Ameriketan ibiltako artzain lesakarren topaketa egingen da urriaren 28an, 18:00etan Beti Gazten, 20:30etan, Alondigan, sagarobes-ta egingen da, kupela eta taloekin. Umaren 17tik azaroren 5era, «Artzain euskaldunak Rio de la Platan» argazki erakusketa ikusgai izanen da Beti Gazten, asteleheneratik larunbatera, 18:30etatik 20:30etara.

**XATURETXEA**  
ZEHAR  
JATETXEA  
948 637 027 - LESAKA

**BOZZALDE**  
JANAKERAKO  
948 637 027 - LESAKA

**IRU BIDE**  
948 637 127  
LESAKA

Tostak-Manteenak-Oheko mandreak  
Eskolako haurren mantak eta  
bortatzen ditugu  
Herriko besteetako, kamisetak, eta blue  
peña bakoitzaren logotipoa eta izenak  
bortatzen ditugu  
Ezazu Plz. Berru 4/9 eta Ariz lekuak eskaintzen ditugu  
Tel: 948 637 027 - LESAKA

## ETXALAR

# Usategietako postuen enkantea motel hasi eta bero akautu

Halere, joan den urtean baino 1.700 euro guttiago bildu ditu Udalak

Joseba eta Nerea

Urtero bezala, iraila ailegatzearekin bat, ehiztunek hitzordua izaten dute udaletxeko batzar aretoan larmendian dauden postuen enkantean parte hartzeko. Hala gertatu zen irailaren 10ean. Batzar aretoa ehizturiez bete zen Baina aurten giroa ez zen iaizkoa bezain beroa, hagitxer motel joan baitzen lehen enkante hau. Enkantean ateratzen diren 22 postuetatik 6 bakarrik jo zituzten enkantean. Apagaria da lehen aldiz subastaren historian 3 postu gelditu zirela hartu gabe. Bertzelakoa izan zen bigarren enkantea. 8 posturi seita eman zitoten eta irailaren 20an egin zen subastan giroa gori-gori zegoen eta egun honetan dirua mugitu zen. Aurten gehien ordaindu den postua 13a izan da, 7.492,5 euro kostatuta. Bigarren garestiena 12. postua izan da, honek 4.036,59 eu-



Arturo GARCIA

**Sesta egunean animazio gehiago izan bazen ere, joan den urtean baino 1.700 euro guttiago bildu ditu Udalak uso postuengatik.**

ro balio izan duelako. Hirugarrena, beriz, 11 a 3.551,59 euroko prezioarekin eta laugarren garestiena 15. postua 3.511,64 euroekin. Honetaz gain, lehen subastan eman gabe gelditu ziren hiru postuak enkantean atera ziren eta sestari jabea lortu zuten.

Guztira 46.115,60 euro eskuratuko ditu udalak aurten BEZa eta udaletxeko gastuak kontuan eduki gabe, joan den urtean baino 1.700

euro gutxiago. larmendiko postuen subastak hasiera motela izan bazuen ere, azkeneko emaitza ez da hain txarra izan.

### Baserrietako bideak

Nafarroako Gobernuak baserriko lanetik bizi direnak laguntzeko subentzioak banatzen ditu urtero. Horren barruan, hainbat bide moldatzeko dirulaguntza eskatu zuen udalak urte hasieran. Nafarro-

ako Gobernutik adierazi dute lanen erdiak urtea akabatu baino lehen egin beharko direla. Bertzela, dirulaguntza hartzeko aukera galdu egingen luke udalak. Hori dela eta, abuztuaren 25eko ez-ohiko batzarraren erabakiz obrak premiazko lehiaketa irekiaren bitartez ematea Lanen zuzendaritza Enrique Monterori emanen zala, proiektua idatzi duen teknikanafi. Hauek izanen dira berriurkoren baserrietako bideak: Axular, Errekabeltz, Zimeldi, Lakate-neko borda, Armitx-Maestreneko borda, Ollarburu, Antsone, Perugorri, Mariskineko Borda, Maritoneko Borda eta Basata. Denetara 6.583 metro moldatzea aurrekusi du udalak. Plan osoak 317.771,06 euroko kostea du eta Nafarroako Gobernuak onartuko balu, %60a finantziatuko luke %32a udaletxeak eta gainetako %8a interesatuen esku geldituko da.



## PERTSONAIA

Mattin ZELAIETA

### 13 zurten eta kapeluko onddoa harrapatu du Errotagaraikoak

Onddo sasocian betebetea gaudu. Aurten bazter guztiak onddoz beterik daude, baina argazkian ikus daitekeen bezalako onddoak, seguru aski, inor gutxi harrapatu ditu. Hau da Errotagaraiko Mattin Zelaia-taren kasua. Joan den irailaren 13an, hamahiru zurtenez eta kapeluz osaturiko onddo eder hau harrapatu zuelako. Ez dira maiz ikusten horrelakoak eta seguruenik onddo honekin eta bildutako bertze hainbertzerekin otordu goxo bat egin zuten. On dagizueta!

**HERRIKO**  
BETATE - JAYEVEEA

Arretoria 11 - 48124  
Tfno. 945 80 80 00

**Maderas GOMEN**

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeak
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableruak: melaminak, hidrofugoak, malmbratuak...

Zaldubia Industrialdea - Tel: 948 560 645 - IRURITA

**USOA**  
nekazari kooperatiba

ganaduentzat pentaurik egokiena

Tel: 948 635 214 - ETXALAR

**DEÑE**

↑ Lentzeria  
↑ Murtzeria

948 637 314  
Lentzeria, 2 - LEZAKA

## ARANTZA

# Udazkeneko kulturaldia urriaren hondar asteburutik azaroaren lehenera

Azaroaren 1ean, Baserritarren Egunaren edizio berria izanen da

Nerea ALTZURI

Herriko talde ezberdinetako ordezkariak udazkeneko kultur egunak antolatzeko bilera-tan ari dira. Kulturaldian egunak zehaztuak dira eta urriaren 29,30,31 eta azaroaren 1a izanen dira. Urteroko legez, adin ezberdinei zuzenduriko kultur ekitaldiak antolatzen ari dira eta arlo ezberdinetako ekimenak egiten dira. Azaroaren 1ean berriz, Baserritarren Eguna izanen da bertze aldi batez. Ekaitza elkartek antolatuta. Ohiko egitaraua izanen du egun horrek eta bertzeak bertze, frontoian herritarren azienda, produktu eta eskulanak hainbat postutan ikusgai izanen dira. Hau dela eta, Ekaitza Elkartetik etxe orok egun ho-

netan parte hartzeko gonbidapena kuzatu nahi du ferrok baliatuz. Baserritarren egunak, herritarrek, norberak egiten duena erakusteko aukera polita eskaintzen du urtean behin.

## Helbideak zuzendu kanpaina

Aitzin horretan, Igantzioko eta gure herriko postariaren eskutitza jasotzen gauden. Bada aspaldixko, etxe bakoitzak bere zenbakia zehaztu du. Hortik aitzinera, gutunetan heldu ziren helbideak zuzentzeko kanpaina abiatu zen 2001eko udan. Urte erdi inguruz, helbidea gaizki zuten eskutitzak itzultzen ziren, eta lau urte pasata, badinudieskutitzen %60 edo %70 inguru helbide zuzenarekin ailegatzen direla.



ARRAZKORRA

Baserritarren Egunean herritarren aziendak ere ikusgai izanen dira.

Geroztik, helbidea oraindik oker bidaltzen duten gutunetan "helbidea gaizki dago" kufo goriarekin ailegatzen dira etxetara.

Hasierako kanpaina eraginkorra izan zen du-darik gabe. Nolanahi ere, guztien saialdiarekin ia gutun guztiak helbide zuzenarekin ailegatzea da orain erronka. Hau dela eta, duela lau urteko kanpaina ber-hartu da berriz ere, eta helbide zuzena ekartzen ez duten gutunak itzuli-ko dira berriz ere hila-bete batzuetan, medikuenak, zerifikatuak eta atzerrik datozenak izan ezik. Izan ere, gutunak auzoaren izena eta zenbakia izatea beharrezkoa da. Ea guztien artean, gutunak behar di-

ren datu horiekin etxera ailegatzeko bidea errazten dugun, gurtzat eta postariarentzat, denentzat errazago.

## Pilotarien ikasturtea

Herriko pilotari gaztetxoek pilota eskolako ikasturtea irailaren 8an abiatu zuten. Aurten, Joseba Pikabea herriko pilotari gaztea irakasle da. Asteazkenetan 17:00etatik 21:30etara dira entrenamenduak eta gut-tira 25en bat gaztetxok, ttikixegoek nahiz handi-goek txandaka entrenatzen dute. Lehengo orduanttikienak; 18:00etatik 20:00etara kadeteak, eta talde honetan, Igantzioko eta Lesakatik etortzen dira; eta azkenik handienak eu-

ren artean aritzen dira. Handien taldeko pilotari batzuk zenbait txapelketa jokatzeko ari dira baina, urrian, Bortzietako nahiz hurbileko txapelketetan jo ta ke hasiko dira guztiak.

## Xorroxin eskolan

Hurrengo alean, irati programazioaren zehaztapena egiten badugu ere, heldu den urriaren 17tik 21eko artean, Xorroxin Irratiko unitate ibiltaria herriko eskolan izanen da. Aurtengo ikasturtean ere, eskolako gaztetxoek programa ezberdinak egiten dituzte. Beti bezala, Xorroxin Irratia, ohiko frekuentzian ez ezik, FM 107.9an adituko da herman.

**ZJ**  
Zalain  
jatetxea  
Hostala  
14 logela,  
baitu eta Tibekin  
P. Jatorri 10 • 31. 348 17 01 67  
Bera • Nafarroa

**umetxo**  
MAURRÉN KOBILÉN ETA BORBONAZA • PIRELLI DUA • PIRIMMA BICIN  
Alarago 1nd • Alarzo • LESAKA • Tf: 948 630 475  
San Fermín, 14 • IRUN 20302 • Tf: 943 618 452  
Folleto 1000 • RENTERIA 20100 • Tf: 943 111 585

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESAKA  
IMANOL TELLETXEA ZUZENA  
Gasolla etxera eramaten dugu  
Tel: 948 63 74 60 • 31770 Lesaka (Nafarroa)

**Ituzia**  
Irezaintza  
Fermin Marijoren Lajalde  
© 666 407214 • 948 631199 • BERA

# HEMENTXE GAUDE!!!



Denboraldi hasiera

**bordatxo**n

Sekulako inaugurazio besta gure

**dj RITXI**

erresidentearekin

**Sarrerarekin edari bat doan**

**BORDATXO** baino lehen,  
hartzazu tragoxka bat

BIXEN  
OSTATUA



Bar  
IRRINTZI



Bar  
EL CAFE

Bar  
AMEZTIA  
Asador

## DONEZTEBE

# Arkupeak elkarteak bidaia egingen du Lodosa eta Lizarrara

Urriaren 20an izanen da eta 10etik 15era eman behar da izena

## ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratu eta pentsionisten elkarteak urriaren 20an Lodosa eta Lizarrara bidaia antolatu du. Bidaia honetan parte hartzeko urriaren 10etik 15eko eguerdirarte eman behar da izena eta 25 euro ordaindu. Autobusen irteera ordutegia inskripzioa egin ondotik emanen da. Hori bai, autobusak batetik bertzeira tarreak utziz aterako dira. Horrela bisitatu behar diren lekuetara ez dira denak batera ailegatu eta ongi ikusteko modua izanen da. Lodosan Conservas Parón bisitatu dute. Baztango lantegian pikillo piperrak ikatz egurrez erretzeko labeak eta txanpinoiak egiten diren lekuak ikusten dituzten bitartean, bertzeek piperrak, zainzuri eta bertze barazkiak dituzten landak ikusiko dituzte. Kontserbak prezio onean erosteko modua ere izanen da. Lodosako lantegitik Lizarra aldera jo-



Argazkia: XAI HARRIAGUIE

Bertze urte batez, giro ederra izan zen Doneztebeko besta ttikietan. Aurten goan, lehen aldiz, argazkian ageri den paella lehiaketa egin zen eta auzo baztarian lehiaketako paella horiek dastatu ziren. Txapelidunak Maider Illarregi eta Jose Luis Arotzenak zuzendutako sukaldari taldekoak izan ziren. Erreka elkarteak antolatutako frontenis eta futbito txapelketen finalak ere jokatu ziren. Gazteen mallako frontenis txapelketako finalean Jon eta Oihanak Josetxo eta Nereari irabazi zieten. Heilduen finalean, Leire eta Landerrek 30 eta 18 irabazi zieten Maialen eta Juleni. Futbito txapelketaren finalean Dufek 8 eta 5 irabazi zion Karmelitas SLri.

anen dira autobusak, 14.30etan Venta Larion jabetxean bazkari ona egitera honako menu

honekin: ganba eta barazkitxo-budina, otarrainxkak plantxan, barazki-menestra, ahate

urinezlatua, cava kopa, tarta izozkiarekin, ura, ardoak, kafea eta likore normalak.

## IKASTAROAK

## Gaita eta atabal ikastaroa antolatu da eskualderako

## ttipi-ttapa

Baztango Gaitanek antolatuta, urrian gaita eta atabal ikastaroa hasiko da. Baztan, Maierreka, Bertizarana eta Bortzirietan interesatuak dauden guzietz zabaldua dago ikastaroa eta izena ematen dutenek nongoak diren kontuan hartuz erabakiko da zein herritan emanklaesek. Baztango Gaitanek aipatu dutenez, «ikastaroa egin ahal izateko solfeoa ez da guztiz beharrezkoa, nahiz eta oso lagungarria den». Guttienera adina 15 urtekoa izanen da neska nahiz mutikoentzat. Ikastaro honetan gaitari eta atabalariek formatuko dira, denbora guttitan karrikan jotzen aritu ahal izateko.

Izen ematea urriaren 10a baino lehen egin beharko da. Horretarako 659 119904 telefonora deitu behar da.

Jose I. Gonzalez Enguita

Pintura lanak orokorrean

948 631 400  
948 631 183

70000449 - 1.000  
31.750 000000

**TOLDOAK** salmenta-konponketa-aloakairua-errotulazioa  
**MOSKITERAK-PERTSIANAK** motorizatuak  
 venecianak-PVCzko LEIHO eta ITXITURAK  
 Tel-Fax: 948 631 003 - Datasoa, 00 behea - BERA

**ERREKALDE**

OSTIA  
 PLAZA  
 KALDEKALDE  
 PAKETAK  
 KALDEKALDE

Tel-Fax: 948 631 003

## ITUREN

# Joaldunen Eguneko bazkarian 120 lagun bildu ziren

Aurtengoan artisauen lanak ikusgai izan dira plazan

Arkaitz MINDEGIA

Aurtengoan irailaren 17an ospatu zen Joaldunen Eguna, eta antolakuntza lana ibintza kulturataldeak hartuzuen bere gain. Berrikuntza aunitz zeuden programatuak. Goizeko 11etan herriko plazan artisauak egon ziren (Zubietako taloak, Oizko kailkugilea...) eta 12:30etan Iturengo dantzari tiki eta handiek dantza saioa polita eskaini zuten.

Bitarte horretan, Joaldunek Ameztiako auzoko ibilbidea egin eta herrira jautsi ziren eguerdi alderako. Dantzariak sursku batekin egin zuten harrera. Ondotik Nazabal eta Larretxea

aizkolariek erakustaldia egin zuten.

Bazkarira urtetik urtera jende gehiago apuntatzen da, eta aurtengoa 120 lagun elkartu ziren Herriko Etxeko ganbaran. Bazkaldu ondotik Jesus M<sup>a</sup> Irazu eta Amets Arzallus bertsolariak aritu ziren, eta baita herriko bertsolariak ere. Alazne Urtxalo, Joxe Mari Fagoaga eta Erik Andiarrena, Eguna-ri behar bezalako errematea emateko Mikel Salaberri akordeolaria-ekin dantzaldia izan zen, gaueko ordu tikiak arte luzatu dena.

### Aerobic ikastaroak

ibintza kulturataldeak Ae-



Argazkia: Joseba OLAGARRI

Urtero bezala, Ameztiako ibilbidea egin zuten joaldunek eguerdian herrira jautsi baino lehen. Auzotarrek ederki eskertzen dute bisita, eta bistan dena, jan-edatekoak ausarki izaten dira baserri atarietan.

robic ikastaroa antolatu du aurtengoa. Donetara 30 lagun apuntatu dira. Itxaso izanen dute irakasle eta klaseak urriaren 5ean hasiko dira. Asteazkenetik aurrera, asteazkenetik aurrera, 20:00etatik 21:00etara Bertzalde, aurtengoa bigarren urtean, Nagore Arretxe eta Onintza Ben-

goetxeak dantza klaseak emanen dituzte.

### Iturengo dantzariak Beran

Iturengo dantzari tikiak lehen aldiz Berako Dantzari Tiki egunean parte hartu zuten irailaren 25ean. Goiz goizetik Berarat abiatu ziren dantzari eta gurasoak.

Eguraldiak sobera lagundu ez zuenez, erakustaldia Rikardo Barojako eskolako frontoian egin zuten. Eguerdian Berako etxeetan bazkaldu eta arratsaldean herri kirolak izan zituzten. Iturengo dantzariak eskerrak eman nahi dizkiote Gure Txokoa elkarteari egin dieten gonbidapenarengatik.

**edredoi nordikoak**

**funda nordikoak**

**mantak**

**maindirak**

**Ohe estalkiak**

**mantelak**

**albornozak**

**toailak**

**kuxinak**

1951tik

**Casa Cambra**

etxea-lentzeria

**OSATU ZURE LANDA ETXEA**

Tel: 948 230 634 • Tafalla, 13 • IRUÑEA

## ELGORRIAGA

# Hameka Kofradia aritu ziren Onddo Kaxuela Lehiaketan

Hernaniko Tolareko Sagardoarena izan zen irabazle

## ttipi-ttapa

Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradia antolatutako Hilabete Mikologikoaren lehendabiziko ekitaldiak egin ziren irailaren azken aste honarrean. Salvador Arotzarena zenaren omenez bosgarren Kaxuela lehiaketa egin zen. Hernaniko Tolareko Sagardoaren kofradia izan zen irabazlea, Antxon Rodriguez eta Izaskun Iturizok egindako onddo salteatuarekin. Tolosako Babarrunaren Kofradia eskuratu zuen bigarren saria eta hirugarrena, Tuterako Alkatxofaren Kofradia-erentzat izan zen.

Jose Miguel Galarrégi, Elgorriagako alkatea eta Onddo eta Zizen Kofradiako presidentea aitatu zigunez, hameka kofradia hartu zuten parte aurtengo lehiaketan.

Kaxulen Lehiaketan parte hartzeko, noski, onddoak ziren osagai nagusiak. Horiekin batera, olio, baratziak,



Antolatzaileek 50 kilo onddo jarri zituzten kofradien eskura.

tipula, arraultzak eta bertze zenbait osagai erabili zituzten kaxuelak egiteko, sukaldarien jakinduriaren eta gustuaren arabera. 50 kilo onddo jarri zituzten antolatzaileek lehiakideen esku.

Aurtengo berrikuntzen artean, pisu gehieneko kofradia saritu zen.

Donostiako Euskal Gastronomiaren Kofradia irabazi zuen sari hau. Jose Benito eta Luis Mokoroa anaiek 252,700 kilo eman baitzituzten baskulan. 5 kiloko onddo zarea jaso zuten saritzat. Kamkaz kamka ibili eta Doneztebera eta bainuetxeke obretara hurbildu zen trenaren

berrikuntza izan da aurtengoa.

Urriko lehen aste honarrean segida izan zuen Mikologia Hilabeteak. Umaren 1ean Juanito Mariezkurrenaren omenez VIII. Kaxuela lehiaketa egin zen eta urriaren 2an, Turistaren Eguna eta Besta Eguna Haundia ospatu ziren.

## ZUBIETA

## Euskararen Eguna ospatuko da urriaren 8an

## ttipi-ttapa

Larunbat honetan, urriaren 8an, eginen da Zubietako Euskararen eguna. Goizean kalejira izanen da herrian barna trikularekin. 12ak aldera herri-tarren artean jokatu den herri kirol saioa izanen da eta 14.30etan herri bazkaria estalpean, Beñat Lizaso, Jokin Uruga eta Ministro bertsolariekin. 18.30etan eskualdeko dantzaren saioa plaza. Eta egunari akabaila ona emateko 00.30etan Luhartzaldearekin dantzaldia izanen da.

## Ikastaroak

Herri aunitzetan bezala Zubietan ere eskulanean ikastaroa egiten da azken urte hauetan. Urriaren 5ean hasi zen eta 13 lagun apuntatu ziren ebeko xokoak apaintzeko asmoarekin. Maiatza arte luzatuko da ikastaroa, asteazkenetan 15.30etatik 17.30etara.

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- ↳ Lanplan autonomiak
- ↳ Nekazariek eta merke langileak
- ↳ Nominak eta Asiguru Sozialak
- ↳ Lan-Kontratatutako laguntzak
- ↳ Enpresa berriz egindako sortzes
- ↳ Diru-laguntza ezberdinak
- ↳ Kontabilitateak
- ↳ IVA eta IRPF
- ↳ Errenta atzeratzea
- ↳ Ebanjelazio eta jubilazio espedienteak
- ↳ Bideragarritasun planak eta aurkitutakoak

LEZAKA: Biltza, 71-behe  
Tel: 948 637 050  
Fax: 948 637 604

BURLATA: Le Vito, 4 - Tel: 948 133 326 - Fax: 948 133 713

**BEINTZAKO SUSTATUA**

EL PASADILLO BEINTZA LABARRU

Javier Mantorola

tekniko instalabaziala  
iturgintza  
gasa  
kalifikazioa

Tel: 929 449 602 - BERA

**Lanchas**

PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERMATZEA  
ESTALDURA OROKORRAK

Bera: Tlxon: 948 630 735 - 407 406 781



## SUNBILLA

# Etxebertzekobordara irteera antolatu du Ulibeltzak elkarteak

Elkarteko bikoteak bigarren postua lortu zuen Marmitako txapelketan

**Jaione OTXANDORENA**

Datorren urriaren 15ean Orabideko Etxebertzekoborda jatetxera ibilaldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak. Goizean aterako dira Sunbillatik oinez eta lasai ederrean eguerdi alderako ailegatzeko asmoarekin Han, Infernuko Errota ikusi eta Etxebertzekobordan hazten dituzten amorrainak erosteko aukera izanen dute. Bazkaldu eta arratsaldean auzoetan itzuliko dira herrira. Ibilaldi hau egiteko interesatua dagoenak urriaren 9a baino lehen eman beharko du izena.

### Mendizale gazteendako ikastaroa

Nafarroako Gobernuak 2006. urterako mendizale gazteendako ikastaroa antolatu du. Baldintzak 12-17 urte bitarteko gaztea izatea eta mendielkarte baten izenean aurkeztea dira. Ikastaro honetan parte



ARRAZOHI JOSEBA OLAGARRAI

**Ulibeltzak elkarteko ordezkariak bigarren postua eskuratu dute Euskal Herriko Marmitako txapelketan** Joan den irailaren 17an jokatu zen Euskal Herriko XXVIII. Marmitako txapelketa Lesakan. Ulibeltzak elkartearen izenean aurkeztu ziren Juan Antonio Ibarra eta Juan Luis Apeztegia Elso. Euskal Herri osoko 149 bikote aurkeztu ziren, baita Madrilgo Euskal Etxetik etorritakoa ere eta guzti horien artean bigarren postua eskuratu zuen Ulibeltzako bikoteak. Irailaren 24an egin zen bazkarian Lesakan lortutako oroigarriak eman zizkioten Vidal Ibarra, Ulibeltzak elkarteko presidenteari.

hartu nahi duenak azaroaren 10orako eman beharko du izena eta Ulibeltzak mendi taldearen izenean egin de-

zake, elkarteko bazkide ez izanda ere.

Bertze aldetik, urriaren 23an ospatuko da Nafarroako mendizale

elkarteen eguna. Zangoza aldean egingen da, Peña izeneko herrian eta ibilaldi ezberdinak izanen dira aukeran.

## FLASH

### Ulibeltzak futbito taldea sortu nahirik

Aurreko urteetan herriko gazteek Baztan-Mallerreka-Bidasoa futbito txapelketan bi talde atara dituzten arren, aurretik badirudi gure herriko bertze talde bat ataratzeko intentzioa dagoela, eta horretarako jende bila ari da Ulibeltzak elkarteak. Ea hiru taldeetatik batek, (edo hirurak), postu ona lortzen duen.

### Piriniotako lau kaxkoen ateraldia

Irailaren 16an Ulibeltzak mendi taldeko zazpi lagun, lau mendi kaxko igotzeko intentzioarekin abiatu ziren herriko. Pirinio erdialdera arratsaldeko 7etan atara ziren eta 9:30etan iritsi. Hurrengo goizean lehendabiziko mendiko kaxkora iristea lortu zuten, Petite Vignemale-ra, 3.032 metroko mendia, baina elurra hasi zuenez ez zuten bertze mendietara igotzerik izan. Bertze batean beharko...

### Dantza taldeko bilera

Dantza taldeko bilera hasiak dira dagoeneko. Ortziraleroko biltzen dira herriko frontoian gaueko bederatzietan. Oraindik ere dantza taldeetan izena eman nahi duenak edozein ortziraleroko, errandako orduan frontoira azaltzea nahikoa du. Izen ematen duten guztien artean erabakikoa da entsaioak noiz izanen diren, erabiliko dituzten jantziak... Aipatutako ekitaldi eta ikastaroetan interesa duen guztiak Vidal Ibarrengana joan beharko du.



**INSTALACIONES ARKALE c.b.**

- Gas instalazioak
- Iturgintza orokorrean
- Kalefakzioa eta Aire egokituak
- Mantenu lanak
- Zintzilikatuta egiten diren lanak

Tel: 610 509 177 - SUNBILLA



**PAGOLA**  
EMBUTIDOS  
*artearen osotasuna*  
**1940**

Altzateko Plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

## GOIZUETA

## «UPN, PSOE eta CDNk ez dute lortuko ikurriña herriko plazatik desagertzea»

Horixe erabaki zuten 300 herritarrek irailaren 17an egindako herri kontsultan

Esteban AROTZENA

Nafarroako Parlamentuko eta Gobernu-ko alderdi espainolisten borondatea bestelakoa baldin bazen ere, ikurriña, herriko plazan izan da hemendik aurrera ere, Goizuetako eta Nafarroako banderekin batera.

UPN, PSOE eta CDNren botuei esker Sinboloen Legea onartu zuen duela hilabete batzuk Nafarroako Parlamentuak. Lege hau betetzen ez zuten udal-  
letako alkate eta zine-

gotzientzat zigor penal eta zibilak aurreikusten ziren bertan. Alderdi abertzale guztien uste-tan, ekimen honek helburu bakarra zuen, ikurriña kenaraztea Nafarroako Herriko Etxe guztietatik.

Duela lau hilabete ailegatu zen epailearen agindua udal-  
letara ikurriña kentzeko esanez, baina udalbatzak errekurritu egin zuen. Ondoren hasi ziren udala, hainbat eragile eta gai-az kezkatulako zenbait herritarren arteko bilerak. Hauek adostutako pro-

posamenari herri batzar-  
rak ia ahobateko baiezkoa eman zion, baina gaita arrunt garrantzitsutzat jotzen zenez, herri kontsulta egi-  
tea erabaki zen goizue-  
tar guzkiek iritzia emate-  
ko aukera izan zezaten.

Proposamenak diogonez, gaur egun udal-  
etako balkoian dauden hiru banderak Herriko Etxe aurrean paratuko diren mastil-  
tan egonen dira Amabirjinetan, Aberri Egunean eta beste hainbat egun esanguratsuntan izan ezik. Jai hauetan, beraz, berri-



Amabirjinetan, Aberri Egunean eta beste egun seinalatu-  
etan jarriko da ikurriña Herriko Etxean.

balkoi nagusira igaroko dira banderak.

303 goizue-  
tarrek har-  
tu zuten parte galdeke-  
tan, erroldaren ia %43a, eta 291k baiezkoa eman zioten proposamenari, ezetzkoak eta balioga-  
beak bosna izan ziren eta botu zuriak 2. Par-  
lehartz harrigarri kon-  
sultaren informazio kan-  
paina zein egoeratan egin zen kontuan har-  
tan baldin bada.

### Zaharren Eguna igandean

65 urtetik goitiko 189 herritar gonbidatu ditu Umore Ona elkarteak urriaren 9an ospatuko den Zaharren Eguna. Bezeran truk eta mus txapelketak jokatu-  
ko dira, eta igandean berri-  
z, bazkari-  
az gain, pilota partidek eta bertso-  
lanek osatuko dute herri-  
ar-  
korentzat hain haundia den egun hau.

## ARESO

## Joseba Olazabal zenari omenaldia egingo dio sokatira taldeak

Igande honetan, urriaren 9an, herri osoa gonbidatua dago

Juana Mari SAIZAR

Igande honetan, urriaren 9an, sokatira taldeak omenaldia eskainiko dio Joseba Olazabal gazleari, taldeko kide zenari. Goizean meza izango da bere oroimenez eta gero plaza-  
n kirol saio ezberdi-  
nen erakustaldiak izan-  
go dira bi orduz. Herri bazkari-  
rokin bukatuko da omenaldia. Herri guz-

tia gonbidatua dagoela azpimarratu du sokati-  
ra taldeak.

### Olazabal txapeldun

Leitzeko lehenbiziko eskuz binakako txapel-  
ketari sei mail-  
etako finalak jokatu ziren irai-  
laren 25ean. Helduen kategorian Mikal Olazabalek jaso zuen txape-  
la. Irureta lagun zue-  
la. Kadete mailan, Alus-



Argazkiko jauntxo hauek zerbitzari eta guzti gosaltzen zuten ehiza garaian. Maria Eraso eta Valentina Pellejero dira argazkiko bi emakumeak.

tiza, Leunda lagun zue-  
la azpi txapeldun geldi-  
tu zen.

Oñatiko Nazioarte-  
ko artzai txakur lehialekan,

Antonio Alustiza eta Ar-  
gi bere txakurrak lau-  
garren postua lortu zu-  
ten lan ona egin eta on-  
doren.

### Ehiza postuak

Ehiza postuak su-  
bastatu dira eta aurten-  
goan 33.000 euroko di-  
r-  
ua egin dute.

# moda

05

*gehigarria*  
**Udazken-negua**



## HONORIO TABERNA



GRUPO DE  
EMPRESAS  
BOUTIQUE

Merkatarren kamika, 29 - 948 450 109 - DONEZTEBE



## FANTXIKE

Mertzaria - Opariak - Lontzeria  
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA

Jaime Urrutia, 15 Eilzondo Tfnoa: 948 580 312



## Belzunequi

DESDE 1909

Jaime Urrutia 44, EILZONDO - Tfnoa: 948 580 312



UDAZKEN  
NEGUKO  
MODA

## PIKABEA MUJER

Kamika Nagusia, 5 (Elizaren ondoan)  
DONEZTEBE - Tfnoa: 948 450207

# Udazken - Negua

## EMAKUMEZKOAK

Kolekzio berriko jantziek bizimodu moderno azpimarratu nahi dute, emakumearen dotorezia eta glamourra. Kolore ugariko tela eta estanpatuek 70.hamarkada ekarriko digute gogora eta betiko traje klasikoaren itxura berrituko da, mozkerara eta akabera bereziekin.

Lur-koloreko tonuetatik hasi eta betiko beltz, gorri edo griserraino doazen kolore sakonak, berde eta hori dizdiratsuekin zein arrosa argiarekin txandakatzen dira. Kolore hauek guztiak lore, irudi geometriko eta "Galeseko printzea" delako estanpatuetan ikusiko dira. Dotorezia eta erosotasuna nabarmenduko da konjuntuetan.



## Koloreak eta estanpatuak

## SOINEKOAK

Soineko eroso eta dotoreek edertuko dute emakumearen irudia. Ehun liso edo "lentejuela" nahiz harizpi dizdiratsuek, luxuzko ukitua emanen diote, eta aldi berean itxura ausarta.

Kotoiaren antzeko ehun naturalak, mikrofibra, likra eta belusaren gisako ehun artifizialekin nahasiak.

# 05

## azkeneko joerak



Pikardiek "fashion" itxura hartuko du

### emakumezkoen LENTZERIA

Azken denboraldietan baino xumeagoak, brilloek oraindik indar handia dute, eta efektu sofistikatuak sortzeko lagungarri dira. Barneko arropa sensueltasunez eta probokazioz hornituko da. Kamisetek edo enkaje forratuko pikardiek "fashion" itxura hartuko dute "pret a porter" arroparekin konbinatuta; lentzeriako kamisoiak, besta egunetan erakusten direnak; top dizdiratsuak. Unibertso bikoitza eta mugarik gabea.

Betiko lentzeria-zaleek, izpiritu frantsestuak izanen dituzte aukeran, etxean eta te-aretoen diseinuetan oinarrituak. Xehetasunek garrantzia handia dute: dekoratutako tiranteak, lazotxoak, puntillak eta material ezberdinen konbinazioak moda kargatu xamarra, baina ederra osatzen dute.

### OSAGARRIAK

Kolore biziak gustuko baldin badituzu, puntuzko bufandak kolore guztietan izanen dituzu: gorria, laranja, urdina, berdea, arrosa... Kolore indartsu eta biziak, belarriak estaltzen dituzten norbegiar estiloko txanoetan aurkituko dituzu.

60.hamarkadako estiloa gustatzen bazaizu, larruzko botsoek, helduleku beltz edo gorri handi eta biribilak izanen dituzte.



Gogokoenak txanoak eta txa-

**IPINGI**  
arropadenda

Arropa formalak eta informalak  
Konplementuak  
Bitxiak  
Eskulangintzako materialak

Santiago 88 • Elizondo  
Tfnoa: 948 580 939

**Lulu**

NEURRI HAUNDIAK  
70a arte

Hondambia, 15 • IRUN  
Tfnoa: 943 616 165

**moda**

**PREMAMA**

Estilokoak  
*Mirari*  
guztizkoak

Zetaz il eder jartzeko behar duzun gustia daukagut

Serapio Mujika, 14 • IRUN  
Tfnoa: 943 020 090



**Alüstiza**

Lurrindegia • Moda osagarriak • Opariak

**ORAIN ERE UDAZKEN-NEGUKO ARROPA**

Karrika Nagusia 12 • 948 450113 • DONEZTEBE



**MERCHE**  
MODA HOMBRE

Berapla Mujika, 11 - 20302 IRUN - Tel: 943 612 626



**CAPELETTI**

Mendiñal Merkatal Zentrua  
20302 IRUN • Tfn: 943 624 672



Gazteendako moda

**OSIÑA**

Altibai 3, beheak  
948 637 951 • LESAMA



## GIZONEZKO-

### A K

Negu honetan ator koadrodunak jantzi-ko dira. Handiak eta ttikiak, xumeak edo hagitz nabariak, "pata de gallo" eta "Galeseko printzea" deituak.

Zorionez trajea ez da derrigorrezkoa. Par-  
txe itxurako sakelak dituzten jakak, jaka  
errustikoak, atorra zabalak edo tertzio-  
pelozko *jeans*-ek itxura informala hartzeko  
aukera zabala eskaintzen dute. Korba-  
tarik gabeko trajeak eta jertse lodi, goxo  
eta erosoak ere informalak izanen dira.  
Egunez ere laranja koloreko jertseek je-  
ans eta angorazko pulóver lodiekin konbi-  
natuko dute.

Koloreari dagokionez, balore seguruetara  
itzultzeko joera dago. Koadroak ez dira gri-  
sen gaman sartuko. Berde eta urdin iluna  
eta burdeos kolorea nagusitzen dira kolekzio  
aunitzetan.



## Korbatarik gabeko trajeak

## Gizonezkoen LENTZERIA



Portugaleko "Ímpetus" etxeak gerrialde baxukoak eta retro estiloko slipak atera ditu. Denboraldi honetako kolekzioak Trendy eta Fantasy izenekin definitzen dira. Trendy modeloak, bere barneko arroparen sentzualitatearekin jostatzeko ausardia duen gizona definitzen du.

Bertzalde, Fantasy modeloak, ikutu doto-reak eta material aurreratuekin eginak dira eta kaleko nahiz sport joera segitzen dute.

Galtzontzilloak ez dira kotoizkoak soilik, gaur egun aukera zabala dago. Honetaz gain, Ímpetus etxeak gizonentzat Tactel eta Lycra janzkiak sortu ditu, ukitu natural eta erosoa ematen diotenak.

Gainera, aukera ezberdinen artean hauta dezakete: galtzontzillo dizdiratsu edo opakak, ehun alderanzgarriak eta estanpatuak. Berrikuntza modura, merkatura sport

erako pijama estanpatu eta kotoizko mallak kaleratu dituzte, diseinu bizi eta modernoekin.



Diseinu bizi eta moder-



**ALBERTO**  
CLASSIC & SPORTWEAR  
1983



- CAMELO
- GENFINS
- DOCKERS
- BARBOUR
- ARMANI JEANS
- REPLAY
- DIESEL
- ENERGIE
- LIBERTO
- REDSKINS
- TIMBERLAND

HONDARRIBIA K., 6 - IRUN  
Tel.-Fax 943 61 58 15

[www.webalberto.com](http://www.webalberto.com)

**KIROLAK ZELA**



948 630598  
Altzate 10  
BERA

*Claudia Arburua*

ileapaindegi  
mixtoa

laister zabalik

Bittiriako Plazan 3 • LESAKA • Tfnoa: 666 455 126

ttipi-ttapa telebistan  
laister

**MODA SAIOA**

**IBARROLA**  
 Haurrendako arropa  
 0-14 urte  
**UDAZKEN  
 NEGUKO  
 MODA**  
 Parrokia: 6  
 948 450 463  
 DONEZTEBE

**Bisuteria  
 Arropa  
 Opariak**  
 ...  
 = 948 510994  
**LEITZA**  
**KAPRITXO**

**MARICARMEN**  
 Arropa KONFEKZIOAK

Haur eta heldueitzako arropetan espezializatuak

Strada Marie 22  
 (Antzokia ondoan)  
**ELIZONDO**  
 948 500 833

**SORGIN-XULO**

Plaza Zaharra, 4 • LESAKA • 948 638 032

## HAURRENTZAKO MODA

Betiko haur kolore argi eta xuabetaz ihes eginez, denboraldi honetan herrialde exotikoetako kolore bizi eta alaiak aukeratu dituzte.

60. hamarkadako izpiritua berpizteko, kolore goxo, tonu klasiko eta naturalak, kirol-ehunen gainean ikusiko ditugu aplikatuak.

Francis Montesinos eta Agatha Ruiz de la Pradak batez ere neska gaztetxoaren moda landu dute, kolore bizi eta fantasiaz beteriko ukituekin Jesús del Pozoren Junior kolezioak kolore hotzeko elementu dotoreak ausardiarekin nahasten ditu. Victorio eta Lucchinok aldiz, haurrak aingeru bihurtu nahi dituzte farfail, tul eta kotoi goxoekin.

Pan con Chocolatek janzten dituen neskatxek, datorren denboraldian dotorezia eta glamourra era-





## OINETAKO- AK

Joera berriek estiloa eta lu-  
xu handia duten modeloak pro-  
posatzen dituzte. Modu ede-  
rrean, retro ukitu batekin,  
informala eta klasikoa na-  
hasiko dira. 20. hamar-  
kadako bohemio eta 70.  
hamarkadako Wood-  
stock belaunaldien arte-  
ko nahasketa horren ondorioz,  
oinetako proposamen berriak bere  
apaingarriengatik dira



### Takoi altuko zapatak

Plataformak eta kuñak indartsu itzuliko dira. Itxura dis-  
kretua klasikoarekin elkartuko da, eta horren emaitza  
itxura arront britaniarra izanen da. Trotteur zapatak,  
amazona botak edo areto-takonak, guztiak gaurkotuak,  
kutsu aristokratikoa dute ezaugarri nagusitzat. Joera  
dotore hauek neguko bota eta mokasin erosoekin osa-  
tzen dira.

Takoi altuko zapatak eta txorkatilean lotzen diren T for-  
mako tirak ditzuztenak, atzera-puntada klasikoak dituz-  
ten gizonezkoen zapatak eta belusazko muleak. 20.ha-  
markadako aretoetako giroa ekartzen dute gogora.

Modelo berritzaileenak, motorzaleen estiloko botak eta  
metal nahiz neoi tonuko kirol oinetakoak dira. Moder-  
no-itxura perfektua zapata perfektuentzat.

**edurne**  
HAUR ARROPADENDA

Alzate 30 - BERA - Tfnoa: 948 630 606

UDAZKEN-NEGUKO  
MENDIKO BOTA EROSO ETA SENDOAK

**KAMET & FRIENDS**

**OSTIZ** Parrokia 17  
DONEZTEBE  
948 450 289

**txinelka**  
ZAPATADENDA

Larunbat arratsaldetan irekia

Osagarriak • Konponketak

Arretxea 20, behea • LESAKA • Tfnoa: 948 637 594

**Kalotxa.  
Zapatadenda.**



**Osagarriak.  
Konponketak.  
Bera.** Legia 42 948 631516

zapatak  
etxeko zapatilak  
deportiboak  
mendiko botak  
boltsoak  
karterak  
gerrikoak  
panuluak  
pasminak  
fularrak  
eskularruak  
txanoak  
aterkiak  
pitxiak  
bidaiatzeko maletak

Gizon, emakume eta haurrentzako **AUKERA ZABALA:**

**OINETAKO AUNITZETAN ESKAINTZA BEREZIA**

**25** eurotan

# OPARI PUBLIZITARIOAK

alde batetik  
**2006ko egutegia**  
bestetik zure  
**publizitatea**



**0,12€**  
hukaitz  
5 upagarri eguneko prezioa



paretan jartzeko  
**egutegi  
pertsonalizatuak**

**4,00€**  
hukaitz  
5 upagarri eguneko prezioa

**KULTURKARI**  
PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Andutzeta 12 • 31760 ETXALAR • (0034) 948 635 458 • kulturkari@ttigi.net

# SANTESTEBAN

# RENAULT

## Tailerrak



Coupe

Mégane

Mégane Sedan

Laguna



Kangoo

Modus

Scénic

KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKAINTZA: (Clio, Modus, Espace...)  
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURAKO LANAK EGITEN DITUGU.  
ESKATU AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE

Leitzako bidea · DONEZTEBE · Tel: 948 450 282 · 948 450 597

# AVIA

# E.S. DONEZTEBE

Gasola etxera eramaten dizu.

Zure eskariak egiteko telefonoa: 948 450 282



Kotxeak kanpotik eta barrenetik garbitzeko makinak

Leitzako bidea, 49 · DONEZTEBE  
Tel: 948 451 679 · Faxe: 948 450 857

## LEITZA

# Elena Irigoien da eskualdeko garapen agente berria

Cedernako teknikaria ostegun eta ostiraletan egongo da udaletxean

## ttipi-ttapa

Cedema-Garalur garapen agentziak urteak ditu Larraun, Leitzaran eta Ultzaman. Baina azkeneko urte terdian nahiko geldirik egon ondotik, berriz ere lanean hasi da, Elena Irigoien Arbizuren eskutik. Uharle-Arakilensortu eta Leitzan bizi den emakume hau kontratatu dute eskualde honetako udal-ek. Hilabete batzuk baditu lanean, baina orain hasiko da jendaurrean. Astelehen eta asteartetan Lekunberrin izanen da, asteazkenetan Larraintzarren eta ostegun eta ostiraletan Leitzako udaletxean. Bore telefonoa 948 610676 izango da, baina berekin ordua eskatzeko komeni da aurrez 617 609328 telefonora deitzea.

## Kiroldegiko ikastaroak

Kiroldegian hainbat kirol mota eta ikastaro eskaintzen dituzte ikasturte honetan. Orain arte bezala, gimnasioa,



ULIZIMHO ARIZADA

## Plazaolako Txirrindula Martxa arrakastatsua

500 txirrindulazale inguru bildu ziren irailaren 18an, Natur Bideen Europako Eguna aitzakitzat hartuta egin zen Plazaolako Txirrindula Martxa. Gehienak Andoaindik abiatu ziren, baina argazkian ageri denez, Leitzako estazio-tik ere ehun bat lagun atera ziren Lekunberrirantz. Egun berean, Uitziko Tunnel Handia berreskuratzeko eskatuz sinadura-bilketa hasi zen. Eskariarekin bat egin nahi dutenek udaletxean eta kiroldegian eman dezakete sinadura edo Interneteko [www.plazaola.org](http://www.plazaola.org) helbidean begiratu.

sauna, frontoi tikia, squahs eta eta kantxako kirolak eskura izanen dituzte erabiltzaileek. Horietaz gain, aerobic, step edo pilates egin

nahi duenak, goizez nahiz arratsaldean izen emateko aukera izanen du. Saltsa eta yoga ikastaroak emateko asmoa ere badute. Haurren-

tzako gimnasia eta kateata edo multikirolak ere izanen dira. Guziak, noski, izen emandako kirolari kopuruaren arabera egokituko dira.

## KIROL-FLASH

## Ibai Bengoetxea profesionala Frontisekin

Ibai Bengoetxea 20 urteko pilotari gazteak Frontis enpresarekin debutatu egingen du profesionala. Mikel Bengoetxea, Bengoetxea IV handiaren semea da Ibai. DV txapelketan ari da orain eta hori bukatu bezain abudo debutatuko omen du profesionala aurretik tekniko eta erematazaile honek. 1,80 metroko altuera eta 77 kilo ditu.

## Jon Rekondo hirugarren

Konporaketan lehendabizikoa izan ondotik, favorito nagusia bera baldin bazen ere, Jon Rekondo hirugarren izan zen Nafarroako bigarren mailako auzkolari txapelketaren finalean.

## Eskuz binakako I. pilota txapelketa

Mikel Olazabal aresorrak eta Inuretak 22-10 irabazi zioten Renobales eta Tabarri Leitzako eskuz binakako I. Txapelketaren final nagusian. Beste bost kategoriatan ere jokatu ziren finalak irailaren 25ean, harmailak betetzen zuten jendearen aldetik, aspaldiko itxurari polita eskaintzen zuen Amazabal pilotalekuak.

luis cestau baralbar	arkitekto teknikoa	leitza 607204485	lucisba @ msn.com
----------------------------	-----------------------	---------------------	-------------------------

**Ark<sub>b</sub>** arkitektura bulegoa

Cello Lana Ranz  
Huarle-Golzal 7 - 31880 Leitza - 645008478 tel

Erakuntza Hirigintza Udal-oharrikularitza

## MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

### ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

Diabeta • Asma • Zizareak • Larri ezteko alergia  
Buru mina • Oin izerdia • Frostia, etab...

### IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alortua
- Strabismoa
- Begi lausoak-kataraktak

### GIHARRE ARAZOAK

- Biakortzea
- Artritis, errebma
- Artrisia, lumbalgia
- Bihurdurak, etab

### KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizet 9etatik 12etara, Arratsaldean 2-7etara, Ordua eskatu

943 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

**BAZTAN**

## 012-Infolocal telefono zerbitzua eskaintzen du Udalak

Intereseko udal-informazioa emanen da zenbaki horretara deituz

**Itipi-itapa**

Balleko Udalak «012-Infolocal» izeneko telefono zerbitzua eskaintzen du irailaren 27tik aitzinera. Egun horretan, Virginia Aleman alkateak, bertze lau udal eta ordezkariekin batera, hitzarmena sinatu zuen Alberto Catalan, Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioako kontseilariarekin.

012 telefonoaren bidez, udalarekin zerkusua duten intereseko hainbat informazio eskura izanen dituzte, udal informazioa, Nafarroakoa, telefono bidezko tramitazioak, udal ekitaldietan izen ematea, herritarren abisu, arrenkura eta oharren erregistroa, inkestak, alkate eta zinegotzietan egoteko ordu eskatzea eta bertze hainbat.

Zerbitzuaren ordutegia, asteleheneetik ortziralerara, 8:00etatik 19:00etara eta larunbeteetan 9:00etatik 13:30etara izanen da eta euskaraz eta gaz-



ARGAZKIA: ONDOROL

**Magna-BKT eskubaloi taldeak ekin dio denboraldiari** Larunbat honetan Katalunian, Castelldefels taldearen kontra jokaturako partidarekin ekin dio Magna-BKT emakumezkoen eskubaloi taldeak denboraldi berriari. Estatuko lehen mailan bigarren urtez aritzeko 70.000 euroko aurrekontua izanen du taldeak. Iaztik zenbait aldaketa izanen ditu taldeak: Hungariako Eszter Banto atezaina, Errumaniako Adriana Stefanescu laterala, Uztamako Ainhoa Iraizoz, eta zenbait taldetan aritu ondotik, herriko taldera itzulo den Itxaso Salaburu arituko dira.

teleraz egin daiteke. Eskualdean, lehendik Beran, Leitzen eta Lesakan ere eskaintzen dute zerbitzu hau eta Nafarroa osoan 60 udal-letan eskaintzen da. Iruleña eta Tuterako 010

zerbitzua gehituz gero, Nafarroako populazioaren %80ak du gaur egun zerbitzu hau erabilizteko aukera eta heldu den urtean gehiago izanen direla jakinarazi dute.

**FLASH**

**Erratzuko mediku kontsulta itxia**

Erratzuko mediku kontsulta itxi egin behar izan dute, teilatu zati bat erori ondotik. Orain, azkeneko hilabete honetan, erratzuarak Arizkungo kontsultara joan behar dute. Bitartean, behin behineko batzar-aretoa kontsultarako moldatzea edo osasun zentro berrira egiteko lehen urratsak ematea pentsatzen ari dira Erratzun.

**Zigako eskola moldatuko da**

Balleko Udalak Lekarozko Elizondo eraikuntza enpresari eman ditio Zigako eskola moldatzeko lanak. Lanen hasierako aurrekontua 218.200 eurokoa da eta etxearren berraketa aldea oso-osoan moldatu behar da, bi solairuak etaganbara. Otsailaren 26an, ikasgela bateko sabailko igeltsua erori zen. Geroztik, Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean eta apuzaren etxean aritu dira ikasle- irakasleak.

**Arizkungo frontoia Leringo enpresa batek moldatuko du**

Leringo Gamica y Cortés eraikuntza enpresak eginen ditu Arizkungo frontoiaren moldaketa lanak. Lanen hasierako aurrekontua ia 320.000 eurokoa da eta Nafarroako Gobernuak %33a subentzionatuko du. Otsailaren 13ko euri eta haizetaren ondotik hondatua dago Arizkungo frontoia.

*Okindegia* *Jatetxea*

# Uxoa

*Entregue en Inditza egiteko ordu, Jatu gura*

**OKINDEGIAN**

- Ogi artisanoa, egurrekoa eta traxarra
- JATETXEAN**
- Menua eta karta (asteforoetan)
- Especialitate perniloa, arrateko jakietan

**Ordulo industrialdea - Tlf: 948 45 34 03 - 31713 ARIZKUN**

**ANTXITONEA**  
Trinketea

**Jatetxea - Ostata**  
**Hotela - Trinketea**

*Menu Entregia*

Tel: 948 581 897  
948 581 853

antxitonea@barta.es - Brasilo Iriarte karrika - ELIZONDO

**BAZTAN**

# Gartzaingo Pilarika bestak urriaren 11tik 15era

Herritarren Egunean auzo arteko herri kirol apostua jokatu da



**Asteartea 11**  
**Hasiera**  
20:00etan txupinazoa eta segidan txistulariek herriari itzulita manen diote beste hasiera emanez. **21:00etan** Baztan Zopak Fransene ostatuan (apuntetzeko ostatuan). Afai ondok Baztango Fanfarrearekin batera denak herri-igoin gara. Gaupasa **SANTXOTENA**rekin **Gozaldera** irauten dutenendako Xinger-jatea, bakotzak bere korrera kar dezala.

**BERR**rekin. 22:00etan mutil dantzak eta Baztango Gaiteroak, 00:00tik aitzinera Gaupasa **SALABERR**rekin.

**Osteguna 13**  
**Haurren Egune**  
10:00etan Diana, hauek ixildu bezain laster buelta erdia eta lo segitu inderrak hartzeko. 12:00etan Bailegira abietiko gara han bazkailzeko. 17:00etan Herriko gaztetxoendako, Kuki, ondok merendua eta txokolata denendako. 19:00etan ANSA AHIZPEK abestuko dute. Gauean Gartzaingo DJ lehiaketa Zulo Beltz elkartean.

**Ostilaria 14**  
**Nazkizarren Eguna**  
8:00etan alkoholemia kontrola plazan, gehien maten duenak gosaria de bal-

de izanen du. 9:00etan gosaria Fransene ostatuan. 11:00etan Herri Kirolak, auzo arteko lehiaketa. 17:00etan Mus txapelketa. 20:00etan dantzaldia **SALABERR**rekin, ondok mutil dantzak eta Baztango gaitariak. 00:00etatik aitzinera dantzaldia **SALABERR**rekin.

**Larribeta 15**  
**Bikisio jatea**  
10:00etan Diana. 14:00etan Zikiro jatea. (Oharra: Zikiro jateko txartelak Fransene Ostatuan salgai. Erosteke azken egune astelehena 10). Ondok trofeo banaketa: musko txapeldunentzat, herri kirolean irabazten due-

narentzat, eta Gartzaingo goiti-behera politenarentzat, gero dantzaldia **SANTXOTENA**rekin. 22:00ak aialdera mutil dantzak eta Baztango gaiteroak. Gozalderaino dantzan segitzeko xingerra eta pintxoak izein ditugu. 6:00etan Gaixoa Ni eta besien azken hutsa.

**BRABO** Elektrizitateak  
Tfnoa: 666 419 035  
Pasadua, 22 - 1º C. - IZUN

**MENDIALDE** Jokabed  
AMAUR • 948 453 060

**ELIZONDON EREKI DUGUI**  
**abartan**  
CERRAMIENTOS • ITXITURAK  
PVC eta ALUMINIOA  
• ateak • leihoak • kontraleihoak  
• marparak  
• zeramikak (fabrikako prezioetan)  
• kontsumo gutxiako kalifikazio elektrikoak  
Santago 56, 560 • 31100 ELIZONDO  
Tel. 948 561 132 • 647 204 023 • 698 970 735  
maxima@abarta.es

**BERA**  
948631076 • BERA

egoi bardot obregozo arkitektoa  
679649789 elizondo • braulio lizarte 33, 1º D • 31700  
948210963 iruñea • paulino caballero 15, 1º A • 31002

**ttipi**  
**ttapa**  
(0034) 948635458

# Lur

www.lurelizondo.com

urriak 01

## BARRA LIBRE

edan ezazu gau osoa zure sarrerakin!!!

15'

01:00

urriak 08

## BINGO

bingoa 3:00etan egingo da

zure kartaia sarrerarekin batera eskura ezazu  
MARRA 300€ BINGOA 600€

8'

01:00

urriak 11

## DISKOTEKA

01:00

urriak 15

## COTI

aurreratua 15€  
salmenta puntuaren lista  
www.lurelizondo.com webean

18'

01:00

urriak 22

## KAUTA

+SURFIN KAOS

12'

12:15

OSTIRALERO

### Lurtaberna

00:45

## SARA

# Erretretan direnak ateraldia egin zuten Nafarroako Aralar-Lekunberri aldera

Sara Korrika lasterketa eta Sara VTT mendi bizikleta itzulia ere iragan dira

## Laetitia eta Sandrine

Irailaren 28an, asteazkena, erretretan diren guztiak gomiatuak ziren Nafarroako eskualdeetan barrera eguna pasatzera.

Goizeko 11etan Aralar-eko San Miguel kapera ikusi zuten eta ondok zintzur bustitzea izan zuten.

Arratsaldeko oren batetan bazkaria izan zuten Lekunberri "Ayestaran" jatetxean eta lauak aldean Lekunberri herria bisitatu zuten. Sararat itzuli ziren 7ak aldean.

## Sara VTT

Irailaren 25ean Igan-dearekin iragan zen Sara VTT mendi bizikleta itzulia, Sarako Turismo Bulegoak antolatutik. Denbora txarra izanik ere, 170 pertsonen parte hartu zuten. Bakoi-tzak hautatzen ahal zuen 30 kilometroko edo 42 kilometroko itzulien artean.

Hogoik hautatu zuten 42 kilometroko ibi-



Antzerki: Joxe Mox GARAT

irailaren 18an, Sarako 60 bat lagun Atauneko Aia auzora joan ziren eguna pasatzera. Bi herriak lotzen dituen analkidetasunaren barnean hainbat ekitaldi antolatuak izan ziren, meza, dantza erakustaldia, pilota partidua, aizkora desafioa eta bazkari herrikoa. Egunari bukaera emateko Sai Berri taldeak kantatu zuen.

laldia eta besteak 30koa. Ibilaldia Sarako inguruetan iragan zen. Lehendabizikoak 3 oren eman ditu 42 kilometroak egiteko eta azken Sarako gazte bat, Henri Etchaverry 12 urtekoa izan da 30 kilometro egin ditu, txaloak

berari. Eguna goxotasun osoan iragan da, antolaketa onari esker.

## Sara Korrika lasterketa

Sara Korrikak bere hamar kilometroko lasterketa antolatu zuen irailaren 10ean besten

idekitzeko. Lasterketa arratsaldeko 5etan abiatu zen Sarako plazatik. Orotara 120 pertsonen parte hartu zuten, aintz saratar, eta horien artean 20 neska abiatu ziren. Ramuntxo Lamot-he, saratarrak, irabazi zuen 39 minutuz.

## Kirol emaitzak

### Errugbia

Sarako Izarrak irailaren 25ean hasi du denboraldia. Aurten erreserba taldea egin dute. Azken hauek hasi ziren jokatzeko Sarako zelaietan St. Martin de Seignanx-en aurka, eta 7-0 irabazi zuten. Lehen taldeak, ordea, 14-23 galdu zuen.

### Eskubaloia

Sarako Urtrintzek ere beren lehiaketa hasi dute irailaren 24an. Kanboko taldearen kontra jokatu zuten, 15-22 irabaziz. Bide hortan segi dezatela!

**HERRIKO ETXEO EDANTECIA**

Café de la Mairie

MAYAN ETA YÉRONZER  
SARA • TEL. 0559542519

**ZOANSA** HYUNDAI

MARKA GUZTIEN KONPONKETA SEAT AUDI

Berrieta, 2 - Alkataga Industrialek - LESAKA (gaurra Berrieta)  
Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 500

**Landibar** EGUNERO IREKIA

ZENTRO KOMERTZIALA

300m<sup>2</sup> pertsona markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...

Euskal Herriko preziorik hoberenak

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI



## TURISMOA

### Turismo azpiegitura proiektuetarako dirulaguntza eman du Gobernuak

2005-2007 urteen artean egingen dira inbertsioak



Nafarroako mendialdeko azpiegitura turistikoko proiektuetarako dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuak 2005-2007 urteetan. Baztango Udalak, "Baztango monumento megalitikoak: oraina eta iragana" proiektuarentzat 77.072 €ko dirulaguntza izanen du. Bertizaranatik Elgorriagara doan bidexka proiekturako dirulaguntza emanen zaie Bertizarana eta Doneztebeko Udalei. Bertizaranakoak, 15.480 €ko laguntza izanen du eta Doneztebekoak, 47.881 €koa. Elgorriagako Udalak, Uraren Interpretazio eta aisialdirako zentrorako 77.072 € dirulaguntza izanen du. Etxalarako Udalak, usategi eta ondare arkeologikoen bidaxka tematikoentzat 30.385 €ko dirulaguntza izanen du. Lesakako Udalak, Agiñako estazio megalitiko proiekturako 44.959 €ko laguntza izanen du. Oizko Udalak, laxoaren eta eskulangileen zentrorako 9.634 €ko subentzioa izanen du. Urdazubiko Udalak, Salbatoreko Monastegia irekiz proiekturako 76.808 €ko dirulaguntza izanen du. Urrozko Udalak, Leurtzako jolas eta natur gunerako 25.048 €ko dirulaguntza izanen du. Zugarramurdiko Udalak, azkenik, lezeen argiterako 41.761 €ko laguntza izanen du. Nafarroako Gobernuak inbertsioaren %64,27 laguntzen du eta gainerakoa Udalak ordainduko dute.

**U L KUTX EN G ILU E EZI**

**NEU G IK ILU**

**4,04% L.L.E.**

IN E TSI EN S	IN E TSI EN S
G ILU T S FINK	G ILU E EFE ENTZI TU
T S FINK	<b>5</b>
T .E	
E E HIL ETE	

**www.ur.itx.com**

**NAFARRAK RUP L KUTXA**

SENPERE

# Ondarearen egunen kari XIX. mendeko herriko Latsagia inauguratu dute

Kantu Zaharren Eguna ospatu zuten Oxtikenean

Franck DOLOSOR

Ondarearen egunen karietat, karrika ondoan den latsagia inauguratu dute. XIXgarren mendeko latsagi hori osoki zahar berri dute. Gauden urteko udan, Concordiako gazteek hasi zuten zahar berri-tze lana. Teilatua aldiz, argazkian ageri diren herriko zurgin batzuek egin dute aurten. Herriko Etxeko langileek ere eskualdia eman dute. Estrena egunean, herritar zombait bildu ziren hautetsien eta Koldo Ameztoi kondalariaren inguruan.

## Europako Pilota Kopa jokatu da Gantxikin

Euskal Herriko liga-ko taldeek kasik sari guztiak irabazi dituzte berriki Gantxiki trinketean

egin den Europako kopian. Laruzko paletan aldiz, nafatar bat nagusitu da. Hegiabehe-re, Itoiz-Itoiz, Leiza-Housset, Fagaide-Driollet eta Lissar-Bidegain pilotariak Europako txapel-dun bilakatu dira Senperen egin den pilota-zaleen hitz orduan.

## SPUCeko errugbilariak sasoian

SPUCeko errugbilari-rik partida andana jokatzen dute kasik aste-buru oro. Capbreton, Nafarroako estadioa eta Gradignan-ekin lehiatu ondoren, Aramitseko, Arcachongo eta Saint Médard en Jalles-eko ekipen kontra ariko dira senperrak. Partida hauek urriaren 16an, 23an eta hazilaren 6an jokatuko dituzte.



Latsagiaren estrena egunean, herritar zombait bildu ziren hautetsien eta Koldo Ameztoi kondalariaren inguruan.



**Kantu Zaharren Eguna Oxtikenean**  
Bortzgarren Kantu zahararen eguna, ezin hobeki iragan zen Oxtikenean. Parte hartzaile guztiak, 60 bat pertsona orotara, hor ziren eguerditan xintxo xintxo. Lehenik elgarren ezagutzak egin ziren eta aperitifa hartu ondoren argazki historikoa denekin hartu. Maider Cigarosa eta Audrey Lacroix kantarien kantu freskoek eman zuten hasiera ekimenari eta gero bazkari denbora guzian, bai eta luzaz ere oraino, lerroz lerro nor daki zombait aire eta pertsu ez ziren eman? Oxtikenekoek, Senpere eta Sarako Herriko Etxeeri, bai Euskal Kultur Erakundeari, laguntza galdetu ondoren, aurten, liburu bat argitaratuko dutela pentsatzen dute.



**ZALDUBI**  
SUKALDEKO MOBLEAK  
*Martin Lizasoain Adarra*  
Etxetresnak · Armairuak  
Komunak · Manparak  
Tel: 948 580 562 · Faxa: 948 581 850  
Zaldubia Industrialdea · 31730 IRURITA

**bortzirudi**  
bortzirudi@telefonos.net  
- KARTELAK - KAMPUTAR - BISERAK - TIKETROAK (baita beste osatu - dituztenak)  
- FOTOKOPIA DIGITALAK, KIDORETAK, TUBU-BELTZIAK - PLANOAK  
- ENKIMADERNAZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPEPTICIA - BULGOGI MATERIALAK  
- DISEÑO GRAFICO - LOGOTIPOAK - ENKOTULOAK - IMPRENTA  
Etegora, 26 Etxebarria Bidea D - BERA - Tel/Fax: 948 621 521

**txokoberri**  
Aluminioan espezializatuen  
• Arztegi Metalikoa (leinoak, atak, berandak....)  
• Parket  
Etxeko eta Aldeko / Banerario / Nafarroa Tel: 938 881 928

## EZKONTZAK

Alberto Gomez Gutierrez eta Ainhoa Mirasotain Oharriz, Donostiakoak Beran, irailaren 13an.

Jose Maria Salgado Dozagarat eta Garbife Iguaran Garmendia, Bera eta Tolosakoa, irailaren 10ean.

Alberto Goñi Agirre eta Aloña Erauskin Irurueta, Baztan eta Donostiakoa, Oieregin irailaren 17an.

Iñaki Orrio Espelosin eta Marta Elena Bravo Garcia, Osakareta Leitzakoa, irailaren 10ean.

Carlos Alfonso Fures Fures eta Nancy Alicia Perugachi Perugachi, Ekuadorrekoak Leitzan, irailaren 10ean.

Xabier Barinagarementeria Zabaleta eta Estibalitz Lertxundi Beñaran, Leitzan eta Billabonakoa, irailaren 17an.

Patxi Pikabea Zubieta eta Maite Elia Mitxelena, Berakoa eta Noainekoa Sunbilla, irailaren 10ean.

Nicolas Braizat Atzori eta Maria Teresa Lorenza Charron Errescart, Marselakoak Elizondon, abuztuaren 13an.

Jon Joseba Oiarregi Elizetxe eta Maria Jose Migeltorena Bertiz, Elizondo eta Sunbilla, irailaren 10ean.

Mariano Iribarren Irigoien eta Maria Isabel Aleman Irungarai, Elizondo eta Amairukoa, irailaren 15ean.

Joseba Martinikorena Danboriena eta Itziar Etxandi Istilart, Bera eta Elizondokoa, irailaren 17an.

Jose Antonio Saharrea Arregi eta Izaskun Etxegarai Dagerre, Irunta eta Elizondokoa, irailaren 24an.



## SORTZEAK

Ainara Arandia Elizondo, Berakoa, irailaren 15ean.

Urtzi Etxegarai Taberna, Berakoa, irailaren 18an.

Aimar Etxeberria Casteig, Berakoa, irailaren 17an.

Eider Goizueta Barriola, Lesakakoa, irailaren 12an.

Maddi Ariztegi Antxordoki, Lesakakoa, irailaren 14an.

Iraia Etxarte Telletxea, Lesakakoa, irailaren 13an.

Ainhize Garro Lasheras, Lesakakoa, irailaren 17an.

Helene Rekarte Korta, Sunbilla, abuztuaren 14an.

Beñat Albisu Etxeberria, Beintza-Labaiengoa, irailaren 15ean.

Naiara Pagazaurtundua Arotzena, Garzaingoa, irailaren 7an.

Haritz Iturburua Jaurena, Erratzukoa, irailaren 14an.

Sara Agerrea Ugalde, Elizondokoa, irailaren 13an.

Joana Biguria Etxabarrí, Elizondokoa, irailaren 20an.

Iban Etxeberri Golenetxe, Sarakoa, abuztuaren 16an.



## HERIOTZAK

Josefa Adansa Baratzeondo, Elizondokoa, irailaren 16an, 88 urte.

Eustakia Indakoetxea Mindegia, Ezkurakoa, irailaren 21ean, 86 urte.

Victoria Ansorena Sagastibeltza, Leitzakoa, irailaren 21ean, 71 urte.

Alberto Errandonea Zelaleta, Berakoa, irailaren 21ean, 82 urte.

Carmen Maia Bergara, Leitzakoa, irailaren 23an, 90 urte.

Maria Jesus Agara Lazkano, Arantzakoa, irailaren 23an, 75 urte.

Nicolas Godoy del Pino, Elizondokoa, irailaren 24an, 91 urte.

Maria Luisa Santesteban Iriarte, Berrotakoa, irailaren 25ean, 81 urte.

Micaela Elorga Etxandi, Elbetekoa, irailaren 25ean, 73 urte.

Mercedes Gandara Arretxea, Sunbilla, irailaren 10ean, 81 urte.

Raphaela Telletxea, Sarakoa, irailaren 12an.

## Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar • Tfnoa: 948 63 54 58



**Francisco Echeverria Otondo**  
(ERRATZU - COACALCO, MEXIKO, 2004/08/27)  
I. URTEURRENA

Tio Francisco:  
"Sortzean hasi gara bizitzan,  
sortzean hasi gara ere hiltzen,  
tanpudaz tanpudaz pizien goazeri heinean  
tanpudaz tanpudaz goaz irtuzten.....  
Eta horri deritzogu bizitza.  
Eta, zergatik ez heriotza!"  
Benito gore artean.

ETXEBERRIA ALBERROTARRAK, Donostia.

## PILOTA

# Bear-Zana pilota plazaren 150. urtemuga besta egun handia izan zen Donezteben

Gaur egungo txapeldunen eta erremonelarien arteko laxoa partida ikusgarria jokatu zen

A.A.

Irailaren 18a besta egun historikoa izan zen Donezteben, Bear-Zana pilota plazaren 150. urteurrena ospatu baitzuten. Laxoa Elkateak egitarau aberatsa antolatatu zuen egun horretarako. Pilotak garrantzi handia izan bazuen ere, omenaldiak, musika eta dantzak ere izan ziren. Lehengo guantelarien arteko partida jokatu zen lehenik: Javier Mariezkurrena, Tomas Uterga, Jaime Agirre eta Tiburtzio Arraztoa alde batetik eta Javier Mariñelarena, Jose Manuel Juanena, Juan Mari Artazkoz eta Pablo Ibarrola bertetik aritu ziren. Lehenbizikoak irabazi zuten. Herriko dantzarien saioaren ondotik, eguerdi aldera jokatu zen sorpresa gisara iragarria zegoen partida. Alde batetik, laxoa txapelketako gaur eguneko txapeldunak Felipe eta Patxiku Ganboa, Peio Iribarren eta Joxe Mari Anzizar aritu ziren eta bertetik herriko lau erremonelari profesional, Koteto Ezkurra eta Iñaki Lizaso buruz buruko

finalistak, Patxi Olazar eta Joxe Etxeberria. Logikak agintzen zuenez, laxoako txapeldunek irabazi zuten, 5-4, baina erremonelariak ere ikuskizun bikaina eskaini zuten.

Partida akituta ailegalu zen omenaldien txanda. Lehenik, 1980tik honat aritutako 52 guantelari eta bitartari omenduzitu zuten. Ondotik, pilotari helduagoen txanda izan zen eta Jaime Agirre, Agustín Eraso, Pedro Larraza eta Faustino Ziganda omenduzitu zuten, txapelketa ofiziala hasi baino lehen Donezteben laxoa bizirik mantendu zutenak izan zirelako. Eusebio Arregi herriko guante egileak ere jaso zuen herritarren gorespina. Azkenik, omenaldi hungarriena Fidel Jadraque zenari egindakoa izan zen. Aunitzen usitez, historian izan den luzeko pilotari onena izan zen Jadraque. Maria Eugenia bere alabak hartu zuen oroigarria. Azkenik, Bear-Zana pilota plazari eskainitako aurrekuarekin akitu zen ospakizun ekitaldia.



Argazkiak: JOSEBA OLAGARAI

Goitian, erremonelari profesional eta txapeldunen arteko partidako protagonistak: Patxi Olazar, Koteto Ezkurra, Iñaki Lizaso, Joxe Etxeberria, Felipe Ganboa, Peio Iribarren, Joxe Mari Anzizar eta Patxiku Ganboa. Tartean, Mikel Iribarren ttattaria dufela, guziak doneztebarrak.

Erdian, Eusebio Arregi, Faustino Ziganda, Agustín Eraso, Pedro Larraza eta Maria Eugenia Jadraque, Fidel Jadraque handiaren alaba, omenaldia jaso zuten unean. Txapelketa ofiziala hasi baino lehen laxoa bizirik mantendu zuten Donezteben eta Fidel Jadraque historiako laxoa pilotari handienetakoa izan zen.

Beheltian, Bear-Zana pilota plazari eskainitako aurrekuarekin.

## HERRI KIROLA

# Fernando Etxegarai eta Maika Ariztegi Euskal Herriko txapelkun

Beintza-Labaiengo Jon Telletxeak irabazi zuen Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketa

**A.A.**  
Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa jokatu zen irailaren 25ean Uharte-Iruñean, gizonen nahiz emakumeen artean. Ez zen ezustekorik izan eta bi txapelak Nafarroan gelditu ziren. Gizonetan, Fernando Etxegarai beratarra nagusitu zen, 6 minutu eta 5 segunduko denborarekin. Bigarren postua Iñigo Lasaga etxalartarrarentzat izan zen hamar segundura. Hirugarren Arabako Roberto Ruiz izan

zen (6'33"), laugarren Xabier Iturralde gipuzkoarra (6'46"), bosgarren Alberto Ibañez arabarra (6'52"), seigarren Mikel Areitio bizkaitarra, (6'58") eta zazpigarren Julen Martiartu (7'02"). Emakumezkoen artean ere eskuaidera etorri da Euskal Herriko txapela. Maika Ariztegi iturandarra aisa nagusitu baitzen, 7 minutu eta 11 segunduko denborarekin. Bigarren Naiara Ferran arabarra izan zen, 37 segundura. Mardaras bizkaitarra hiruga-

rren izan zen eta Itxaso Hernandez arabarra laugarren.  
Jaialdi berean, Beintza-Labaiengo Jon Telletxeak ezustekoa eman zuen eta Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketa irabazi zuen. Kanporaketa saioan ikusitakoaren arabera, Jon Rekondo leitzarra zen favorito nagusia, baina hirugarren postuan akautu zuen finala. Jon Telletxeak 18 minutu eta 37 segundu behar izan zituen bi kanardiko, bi 60 ontzako



**Nafarroakoan bezalaxe, Euskal Herriko txapelketan ere txapelkun eta bigarren izan dira Fernando Etxegarai eta Iñigo Lasaga.**

eta oinbiko bat mozteko. Luis Mari Belarra donztebarrak kolpe bat gehiago, bi segundu behar izan zituen. Hirugarren postua Jon Rekondo leitzarrek eskuratu zuen (19'32"). Laugarren Altsasuko David Amillano izan zen

(22'18") eta bosgarren Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria (24'27"). Azkenik, Euskal Herriko emakumezkoen arpana txapelketa ere jokatu zen eta Bizkaitako Etxeberria ahizpek ez zuten arazorik izan txapela irabazteko.

## Abona zaitez Giltxaurdira

Instalación Deportiva Municipal

### Abónate a Giltxaurdi

Udal Kirol Instalazioa

**Giltxaurdi**  
Udal Kirol Instalazioa  
INSTALACIÓN DEPORTIVA MUNICIPAL

Tel. 948 452 501  
E-mail: giltxaurdi@bzaztan.es

**25 x 12,5 metroko igerileku klimatizatua**  
Piscina Climatizada 25 x 12,5 metros

**12 x 7 metroko igerileku klimatizatua**  
Piscina Climatizada 12 x 7 metros

**Buztan**  
Zabalera  
Hidrosistemiak zuzen Buztan Udal Kirol Instalazioa bitartean  
31 tenperaturako igerileku  
Zona hidromasaje-terratu. Sauna-bera hotza  
Sala zeharria  
Musikarekin erlazio eta zerekin kartabonakuntza  
Sala de recepciones y mantenimiento  
Biltegiak 400  
Sala zirkularra  
4.500 metroko azalera gunea (terratutua)  
4.500 metroko azalera gunea (terratutua)  
Hidromasaje gunea  
Piscina berria  
Josteko gunea  
Zona teknika

**ERRENTZA-URTERO ARONDA 2006ko**  
urtarraren 31a baino lehen abiaraz gero, 300  
euro baineko kuxka desbentazaren diru-gu.

**OPORTA:** 61 euroa H. ABONORAUARIAL aurretik  
dal 31 de octubre 2006. Se descuentan una  
mensualidad

**BERRIRA:** Irailaren 11ko abonora 11 euro-  
bitartekoa

**NUOVO:** Abonora de irailaren 11 de 11 euro

**Kirol kartonak:** haurdara: urtararen 31. lehen  
onetsak irailaren 11ko aurretik.

Comenzar de los **CURSOS DEPORTIVOS** 1  
de octubre Instalaciones desde el 12 de sep-  
tiembre

Buztan Udal  
Ayuntamiento del  
Valle de Buztan

# AGENDA

## egunez egun

### BESTAK

#### DARTZAIN

Urriaren 11tik 15era Pilarika bestak. Xehetasunak 22. orman.

### ZINEMA

#### BERA

Urriaren 6an Marisa Lafuente espainiarren «Platicando» etorkinei buruzko filme laburra eskainiko da Kultur Etxean 20:30etan. Punto de Vista Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jalaldian sartua. Filme laburra denaz, ipuin kontalari batekin aberastuko da hasieran eta bukaeran munduko ipuinak kontatuko ditu.

### OSPAKIZUNAK

#### BERA

Urriaren 23an XIX. Luñaren Eguna ospatuko da.

### ZUBIETA

Urriaren 8an Euskararen Eguna ospatuko da. Xehetasunak 16. orman.

### MENDI ATERALDIAK

#### BERNOLA

Urriaren 15ean Orabidea inguruan dagoen Etxebertzekoborda jabetxera libialdia antolatuko du Ulibeltzak elkarteak.

### ZUGARRAMURDI

Urriaren 9an Lesakara ateraldia egingen du Atxuria menditaldeak.

### SOLASALDIAK

#### BERA

Urriaren 18an «La posguerra en Iraq. Resistencia, caos y ocupación militar» solasaldia eskainiko du Javier Aisa IPES-eko kideak liburutegian 19:30etan.

## TELEBISTAKO TXOKOA



## ORTZEGUNERO TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

# «Kontu kontari: mende bat oroitzuz» saio berria

Azkeneko aste hauetan ikusi ahal izan den bezala, Ttiipi-Ttapa Telebistaren denboraldi berriak hainbat nobedade ekarri dizkigu. Horien artean «Kontu kontari: mende bat oroitzuz» saioa izanen da berrikuntza nagusia, ortzegun honetatik aitzinera emititzen hasiko dena. Saioaren grabaketa-lanak udan burutu zituzten telebistako lankideek. Bortziriak eta Malerreka adinduekin bildu ziren eta euren bizitzako istorio, pasarte eta oroitzapenak kontatzeko eskatu zieten. Horrela, ordu aunitzetako materiala bildu zuten. Aitzor ikaragarria. Izan ere, lekukotasun horien bidez euskal kulturaren eta

euskararen beraren aberastasuna ezagutzeko aukera izanen da orain saio berexi hauetan. Astero-astero belaunaldi bat osatu duten pertsonen bizimoduaren berri jakiten ahaliko dute Ttiipi-Ttapa ikusentzuleek.

Saio bakoitzean hiru lagun ezagutuko ditugu, gisa guztietako gaiez solastuko zaizkigunak. Baserriko lanen inguruan, Francoren denborako eskolaz, herriko besta eta inauteriak nola bizitzen zituzten, erlijioak zuen garrantziaz eta ohi-turez, zerri-hiltzaiaz, kontrabandoaz, ligatze kontuetaz... Oroitu, ortzegunero, albistegiaren ondotik, Ttiipi-Ttapa Telebistan.

## DISKAK



«Dana»

Mikel URDANGARIN

ELKAR 2005

Mikel Urdangarin gure bizitzan iada finkaturik dagoen kantugilea dugu. Gaztea izan arren, arrakastaz osatutako bidea lantzen jakin izan du (1998tik orain arte 6 disko garrantzitsu eta DVD bat argitaratu ditu) eta ezarlan-ozarlan lortu duen onarpen ikaragarria ikusita, Euskal Herriko konposatzaile zein interprete nagusienetakoa ez ezik, gure kantagintzaren tradizioan ondorengo naturalena bera dela baieztatu dezakegu. «Dana» azken diskoa, bere karrera zein prertsionarizat erronka berria suposatzen duen lan gogotsua dugu, aitzinera emandako urrats ausarta eta orabakiorra, lan berri honetan, inoiz baino zihurrago ageri zaigu Mikel. «Dana» izeneko honetan, egiazko kantu disdraztu zoragarriak topatuko ditugu, pentsatu gabe gustatzen zaizkigunak.

## BASERRIA

DATA ITURRIA: NAFARRIAR GOBERNUA (Irailaren 18tik 23ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**  
(19 kilo): 21,50 € (-2,50)

**Zerri gizona**  
1,050 € kiloa (-0,080)

**Zerramak:**  
0,460 € Kg/bizirik (-0,040)

### BEINKIA



**Aretze gizenak:**  
Idixkoak: €/kg. Kanal  
Extra 3,42 (=)  
1.koa 3,19 (=)  
2.koa 3,06 (=)  
Urruxak: €/kg. Kanal  
Extra 3,52 (=)  
1.koa 3,31 (=)  
2.koa 3,13 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalaan pisatzen duten aritzeenak dira.

**Aretze txikiak**  
(15 egun ingurukoak):  
**Aretze mestizoak:**  
umuxak 206,00 (=)  
idixkoak 234,00 (+4,00)

**Aretze nabarrak:**  
umuxak 166,00 (=)  
idixkoak 190,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortubentak: 2,95/3,01  
Zaldi-behorak: 1,67/1,87

**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 8,70/8,90  
8-10 kilokoak: 7,00/7,60

**AGENDA**  
egunez  
egun

**JAKIN BEHARREKOAK**

**Akademia batean matrikulatzean irakaskuntza kontratua eskatu**

Fakturak eskatzea ere aholkatu du Irache elkarteak

Irailak ikasturte berriaren hasiera mar-  
katzen du eta aunitz  
dira irakaskuntza aka-  
demiatan izen ema-  
teko aprobetxatzen  
dutenak. Guraso au-  
nitzek ere akademia  
hauetara jotzen dute,  
beraien seme-alaben  
formakuntza osatze-  
ko, beraien hizkuntza  
maila hobetzea edo  
asignatura batzuetan  
laguntza bilatuz.

Irache kontsumitzaile  
elkartetik jakinarazi  
dutenaz, zentro bat  
edo bertzea aukera-  
tzeko, emanen dituen  
zerbitzuen egiazko in-  
formazio zehatza es-  
katu behar dute kon-  
sumitzaileek, ondok  
aipatuko ditugun ahol-  
kuak segituz:

- Klase bakoitzeko izan-  
nen den ikasle kopu-  
ruari, irakasleen titu-  
lazioari buruzkoa eta  
zentroaren baldintzei  
buruzko informazioa  
galdetu; hizkuntzen  
kasuan, jatorrizko ira-  
kasleak diren edo ez,



Prezioan materialak sartuak dauden edo ez jakitea komeni da.

- irakaskuntza kon-  
tratua sinatu, ikaslea-  
ren nahiz ikaslearen  
eskubide eta be-  
tebeharrak agertzen  
dituena, ikastaroaren

- iraupena, prezioa, ma-  
trikulazio baldintzak...  
Egutegiak ikasteko  
eta besta egunak ze-  
haztu behar ditu. Ur-  
tero izaten dira gura-  
soen kezak, abendu-  
ko zubietan akade-  
miak itxitzen dutela eta  
ikastaroa kontrata-  
tzerakoan horren be-  
rririk ez zutelako.

- Egiten diren ordain-  
keta guztien faktura  
eskatu. Ohikoen ma-  
trikula urte hasieran

- eta gero hilabetero  
klaseok ordaintzea da.  
Aitzinetik ikasturte  
osoa ordaintzea edo  
finantziatzea ez du  
aholkatzen Irachek.
- Zentroaren publizi-  
tatea gorde behar da.  
Eskaintza edo baldin-  
tza bereziak iragar-  
tzen direnean akade-  
miak oso-osorik bete  
behar ditu, eta kon-  
sumitzaileak horiek  
betetzea eskatzen  
ahal du.

**ERAKUSKETAK**

**DEIA**

**Urriaren 5etik 15era**  
«Nafarroako euskalkiari»  
erakusketa Kultur ETxean,  
asteazkenetik larunbatara,  
18:00etatik 20:00etara.

**LESAKA**

**Irailaren 24tik urriaren 15w**  
era «Agiña eta Oteiza»  
erakusketa Beti Gazten,  
asteleheneetik larunbatara  
18:30etatik 20:30etara.  
**Urriaren 17tik azaroaren**  
**8ra** «Euskal artzainak Rio de  
la Platan» argazki  
erakusketa ikusgai Beti  
Gazte elkartearen egoitzan,  
asteleheneetik larunbatara,  
18:30etatik 20:30etara.

**ANTZERKIAK**

**DEIA**

**Urriaren 9an** Dar-Dar  
taldearen «Egizu lo, Tertulo!»  
hautrendako antzezina  
17:00etan Kultur Etxean.  
Labiaga ikastolak antolatua,  
Borako Kultur Batzordearen  
laguntzarekin.

**Urriaren 15ean**  
helduentzako antzerkia  
Kultur Etxean 20:00etan.  
Markelife antzerki taldearen  
«Lau bihotz» antzezina.

**LESAKA**

**Urriaren 7an** «Bake eta  
umorezko autobusa»  
22:00etan Kasinoan,  
MacRea komiko irlandesaren  
eskutik.

**IKASTAROAK**

**DEIA**

**Urriaren 13tik abenduaren**  
**22ra** ebeko konponketa  
tikikiak egiteko gizon eta  
emakumeentzat bricolaje  
ikastaroa antolatu du Uxua  
Emakume Taldeak. Ikastaroa  
Jesus Alacidek emanen du  
ortzegunetan 18:00etatik  
20:00etara Herriko Etxean.  
Izan ematea urriaren 6a  
baino lehen egin behar da,  
012 telefonora deituz.  
Matrikula: 30 euro.

**LIBURUAK**



Dragoien orroa

**Fernando MORILLO**

ELKAR, 2005

Aretxabaleta. Arrasateko eta  
Eskoriatzako Arizmendi Ikas-  
tolak 2005eko Kilometroen be-  
rruan antofaturiko literatur  
lehiaketaren emaitza da libu-  
ru hau. Fernando Morillo idaz-  
leak herri horietan kokatutako  
ziriborroa bukatu gabea ta-  
xutu, Interneten eskagi eta  
lehiaketa delialdia egin zen, li-  
buruari bukaera emateko.  
Irabzlea Roberto Izagirre Ba-  
ruetabeña izan zen, baina ber-  
tze lehiakideen ideietatik ere  
edan duela onartu du Morillok,

nahiz eta gero bere ahotsare-  
kin kontatzen ahalegindu.  
Orain dela milaka urte, azken  
herensugea akabatzeke as-  
moz ekartu dira basajaunak,  
jentilak, gizotsoa... Gogorra  
izanen da borroka, eta garai  
mitiko zaharraren amaiera su-  
matzen da zeruertzean... Gu-  
re egunetara etorrita, gaua  
mendian akanpatuta pasa-  
tzeko asmoa du Eskoriatzako  
gazte-koadilabatek, baina nes-  
ka mutil horiek ezin igarri zer  
ezkutatzen den lurpean.

Ez da irribatzen iragarpena jarraitzeko... (small text regarding advertising terms)

...ETA GAINERA ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE BIZIETAN IZANEN DUTE!

Bil horietan partikular, profesional eta merkatuen informazio eta zerbitzuak ematen dira...

- ETXE BIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartitua
106. Bertzelakoak

- GARAJEAK/LOKALAK
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

- LURRAK/ORUBEAK
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

- ZERBITZUAK
201. Hargin/igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizitateak
204. Iturginak
205. Zurpinak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

- LANA
301. Eskariak
302. Eskaintzak

- IRAKASKUNTZA
401. Eskaintzak
402. Akademiak

- MOTORRA
501. Salerosketak
502. Tailerrak

- ANIMALIAK
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

- DENETARIK
701. Galdut / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

- NARREMANAK
801. Agurrak

BULDAIN IMMOBILIARIA LETZAN... 314 zehaztutako erakunde-proiektu marra dago...

ETXE BIZITZAK 101 Saldu LABAIEN. Enpresa salgai, ura, argia eta bidearekin, 5.000 mko lur eremua...

ELIZONDO. Bigelako apartamentua salgai. Dena kanpo aldera begira, mobilizatu, egoera onean...

ETXE BIZITZAK 102 Erosi BERA. Pertsona batek pisu bat erosiko luke...

ETXE BIZITZAK 103 Errentan eman ANTZOAIN. Pisua errentan emateko. Bikoizte, mobilizatua, Laugarren pisua...

ETXE BIZITZAK 104 Errentan hartu ELIZONDO. Pisu bat errentan hartu nahi da...

ETXE BIZITZAK 104 Errentan hartu BERA-SUNBILLA-DONEZTEBE. Pisua errentan hartuko nuke...

ADOS ERRENDA ETXEN ALOKATZE ERRENDA ERRENDA ERRENDA ERRENDA ERRENDA

BERA-LESACA. Pisu errentan hartu nahi nuke...

ETXE BIZITZAK 105 Etxe konpartitua IRUÑA. Pisua osatzeko pertsona bat behar da...

LURRAK/ORUBEAK 112 Salgai LESACA. Nabaz auzoan 7.400 mko lur-eremu kustragarria salgai...

LURRAK/ORUBEAK 113 Erosi BAZTAN-MALEERREKA. 3.000 eta 5.000 m² artoan duen lur eremua erosiko nuke...

LURRAK/ORUBEAK 115 Errentan hartu LEITZA. Hiru behorrontzat belatsoa edo barutiak hartuko genituzke errentan...

Lan bila zabilta? LAN ESKAINTZA LANGILEAK ERAIKIN PUBLIKOETAKO MANTENIMENDUA... GIDARIAK... Presta zaitetz. Informazioa dohan. 948 199 596

PSIKOANALISTA... 948 272011 (Itzika) 948 580975 Jena Urte 49:00 - ELIZONDO

ZERBITZUAK 208 Bertzelakoak Pladurrezko lanak egiten dira. Enfotomak, isolamenduetan eta dekorazioetan...

LANA 301 Eskariak Berako emakume zintzo eta arduratsua lan ogitoko eskaintzen da...

Ernakume batek edozein lan eginez luke, sukalde laguntzaila, adinekoko edo haurren zaintza...

LANA 302 Eskaintzak IBARDIN. Pertsona bat behar da zerbizari lanean antzeko aste hondarretan eguarditan...





Argazkiak berreskuratuzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.info



**MIKEL BALEZTENA TABERNA** leizateak urtaren 23an 5 urte beteiko ditu. Auntz urtez Aurtzko familaren partetik. Muku haundi bat moter.



**JULEN URRINA MENDEZ** berriak urte bat bete du urtaren 2an. Zorionak Ane eta Ainaeren partetik.



**JOANA BERRONKETA** berriak 8 urte bete ditu urtaren 25an. Auntz urtez eta 8 muku ama, aita eta Xabier partetik. Zorionak praxosak!



**ALAITZ ARRANBARRI** berriak 6 urte bete ditu urtaren 25an. Auntz urtez eta sei muku haundi familia guztiaren partetik.



**IÑAKI ELIZUNDIO BENDOGITIA** berriak urtaren 13an urte beteiko ditu. Muxu elixeko arrazentzat luongo osaba, amaiti eta abaiaren partetik.



Zorionak Urrozko **MIKEL SALBASIA** urtaren 2an 422 urte bete dituela, famila eta bereziki bi egondisari partetik. Kamariro beñela futuro guti...



**OLAIA TELLETXEKA ANIZTAR** leizateak 5 urte bete ditu urtaren 1ean. Zorionak eta muku haundi bat familaren partetik.



**MIKEL TELLETXEKA ANIZTAR** leizateak 1 urte bete ditu urtaren 25an. Zorionak eta muku haundi bat familaren partetik.



**MIKEL TELLETXEKA ANIZTAR** eta **OLAIA TELLETXEKA ANIZTAR** leizateak 10 eta 5 urte bete dituzte urtaren 25an eta urtaren 1ean. Auntz urtez eta muku haundi bat familaren partetik.



Aitzolango **JAUURE REMEIZ** berriak urte bete du urtaren 25an. Zorionak eta muku haundi bat gure potoekin, aita eta amaren partetik.



**JAUURE REMEIZ** berriak urte bete du urtaren 25an. Zorionak eta muku haundi bat gure potoekin, aita eta amaren partetik.



**IXASO BERRONKETA** leizateak urte bete du urtaren 25an. Zorionak eta muku haundi bat gure potoekin, aita eta amaren partetik.



**IXASO BERRONKETA** leizateak urte bete du urtaren 25an. Zorionak eta muku haundi bat gure potoekin, aita eta amaren partetik.



**JULEN URRINA MENDEZ** berriak urte bete du urtaren 2an. Zorionak bere ama eta abaiaren partetik. Aita maite zafu.



**MAIZETA AZPIZ** leizateak 2 urte beteiko ditu urtaren 1ean. Zorionak eta muku haundi bat Sereka Klaudio, Mixel eta Philipperen partetik.



**ANE OYAMEIN** berriak urtaren 2an 2 urte beteiko ditu. Zorionak eta muku haundi bat aita, ama eta Narairen partetik.



**PABLO INAZOKI** leizateak urte beteiko du urtaren 10ean. Zorionak eta muku haundi bat familaren partetik.



**OLAIA OYARZABAL** leizateak 8 urte beteiko ditu urtaren 10ean. Auntz urtez Aritz eta gurasoen partetik. 8 muku potoekin.



Eneko **BANTESTEBAN** leizateak urtaren 2an 2 urte bete ditu. Zorionak amaiti eta abaiaren partetik eta muku haundi bat ere familaren partetik.




**KIARA AUZOA** berriak urte bete du urtaren 2an. Zorionak aita, ama eta abaiaren partetik. Komu izan partetik. Ondo gata eguna.



**JULEN ZELAITA** leizateak urte bete du urtaren 25an. Zorionak aita, ama eta abaiaren partetik. Komu izan partetik. Ondo gata eguna.

**NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,28 EUROKO 13 SEILU TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerreka S.L.  
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA.

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA

- SUKALDEAK
- LOGELAK
- MAHAI ETA AULKIAK
- KOLTXOIAK
- LORATEGIKO MOBLEAK
- ANTIGUALEKO MOBLEAK
- KONPLEMENTUAK



# MOBEL - KASA

ALTZARIAK

*betiko kalitatea*  
gaur egungo diseinuekin

- Urtebeteko epea zure erosketak ordaintzeko, kargurik gabe.

**Proiektu pertsonalizatuak**



- 2500 m<sup>2</sup> ko erakusketa.
- Aparkaleku pribatua eta haurrentzako toki librea.

**Larruzko sofak %50** erainoko deskontuekin



N-1 errep. • 472 km  
Iruin eta Carrefour (lehen Pryca)  
tarteko bidean

20100 LEZO (Gipuzkoa)  
Tel. 943 26 11 95 • Fax 943 26 11 96  
e-mail: indar-arretxea@terra.es  
www.mobel-kasa.com



**KOLTXOIAK** eskaintza berezia

ENBASEEK BEHAR BEZALA BEREIZTEA ESKATZEN DIZUTE

# BEREIZTU



## BAZTAN, BORTZIRIAK ETA MALERREKAN 164.000 Kg. ENBASE BERRESKURATU DITUGU

Kontuan hartu birziklatze sistema etxean hasten dela. Bereiztu enbaseak eta sartu kolore horiko zaborrontzietan. Horrela egiten badugu ez dira zabortegietara eramanen eta ingurumena zainduko dugu. Guztion artean, oraindik gehiago egin dezakegu.



SEGI DEZAGUN ENBASEAK BEREIZTEN GURE HERRIAK ZAINTZEKO



BIRZIKLATZEKO BEREIZTU  
[www.ecoembes.com](http://www.ecoembes.com)

